



ARGIA



Flecha eta CREA kasua

Abusuengatik salatutako sarearen euskal adarrak

IKERKETA ERREPORTAJEA



**Ura are urriago
bihurtu du
kudeaketa txarrak**

12 | IRAN



**"Flandrian jaio arren,
gu euskaldunak gara"**

14 | IMANOL MITXELENA



**2.000 militanteko
mugimendu kristaua
erregimen frankistan**

34 | HERRI GAZTEI

2026 / 01 / 04 | 4 €

2.946



SAN TELMO MUSEOA

AMAZONIAK ANTZINAKO ETORKIZUNA

ERAKUSKETA / 2025.10.31 — 2026.04.12

Amazoniak. Antzinako etorkizunak lurreko baso tropikal handienaren aberastasun natural eta kultural zabalean murgiltzen gaitu. Amazoniako artista eta kolektiboek sortutako argazki, instalazio eta muralen bidez egiten du.

Erakusketak planetaren etorkizunerako funtsezkoa den eskualde baten berezko diren bizitzeko eta mundua habitatzeko moduetara hurbiltzen gaitu.

Antolaketa

STM
San Telmo Museoa

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

 donostia
kultura

Ekoizpena

CCCB Centre de Cultura
Contemporània
de Barcelona

Museoaren erakunde babesleak

 EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA MEMORITZA
POLITIKA ERRIA
DEPARTAMENTU DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 GIPUZKOA
Kultura

San Telmo Museoak antolatutako eta Centre de Cultura Contemporània de Barcelonak - CCCB - ekoitzitako erakusketa
www.santelmomuseoa.eus | #AmazoniakSTM | San Telmo Museoa - Zuloaga pza. 1 - 20003 Donostia

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | BERRIKETA GUTXI
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO MUNTIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 19 | XIMUN FUCHS
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | KARMELE GISASOLA
- 21 | EDU ZELAIETA
- 22 | ROSER ESPELT

Finkoak

- 42 | KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



38 | **ANDRÉS RUGGERI**

Gizarte antropologoa da Andrés Ruggeri (Buenos Aires, Argentina, 1967), eta 2002tik Facultad Abierta programa zuzentzen du, langileek berreskuraturako enpresak laguntzen, aholkatzen eta ikertzen dituen UBako Filosofiako eta Letren Fakultateko talde bat. Gaian espezializatutako hainbat libururen egilea izateaz gain, hitzaldiak eta ikastaroak ematen ditu Hego Amerikako, Europako eta Asiako hainbat herrialdetan. 2007tik La economía de los Trabajadores nazioarteko erakundea koordinatzen du. Berriki Euskal Herrian izan dugu EHUgunek ekarrita, *Autogestioa eta birjabetze publikoa* jardunaldien eskutik.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Ur baliabidea ongi kudeatzeko, Irango buruzagitzak erakutsi digu egin behar ez dena

Nikolas Goñi

14 | JENDEAK | IMANOL MITXELENA

"Ez zait interesatzen paperean zer nazionalitate jartzen duen, ni euskalduna naiz"

Miel A. Elustondo

24 | CREA ETA RAMÓN FLECHA

Euskal Herrian ere abusuak, mehatxuak eta jazarpena

Zigor Olabarria

34 | AITOR TENA EIZAGIRRE

"Herri Gazteditik militante mordo bat irten zen mugimendu askotara"

Mikel Eizagirre

48 | I'AZKEN AFARIA' KOMIKIA

Saldutako idealak, krisien deiadarrak

Gorka Peñagarikano


ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Beñat Badiola, Ekain Carrasco, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Leire Artola, Lander Arbelaiz, Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga.

Diseinua

Maialen Arana, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUKEIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:


anza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


iametza

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Aldizkari honek ekoedizioaren baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202500064


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen sareko kide gara.



Erresilientzia

Egokitzeko gaitasuna da, traumaren aurrean suspertu eta indartuta ateratzeko. Greziako mitologiatik datorkigun Fenix hegaziaren antzera, zenbat aldiz "berreraiki" dute bizitza palestinarrek? Urteko azken zenbakiko argazkia Gazari begira jarri nahi dugu. Urteak pasata ere, ahanzturak ezin duelako estali oraindik ere gelditu ez den genozidioa.

 EYAD BABA - GETTY IMAGES  AXIER LOPEZ



Palestinaren aldeko flotilla berria 2026ko udaberrirako

 EKAIN CARRASCO TELLAETXE



HEUTE.AT

Global Sumud Flotillak iragarri du 100 herrialde baino gehiagoko 3.000 boluntariotik gora abiatuko direla Mediterraneoko hainbat portutatik Palestinara. Erakunde eta gobernuen "porrotaren" aurrean, jendeak "erantzun" egin behar duela azpimarratu dute.

GLF Sumud Flotilla Globalak 2026ko udaberriko misioa iragarri du, aurtengoa baino bi aldiz handiagoa eta orain arteko Palestinaren aldeko itsas ekintza zibil koordinatu handiena: 100 herrialde baino gehiagoko 3.000 boluntario, eta 100dik gora ontzi abiatuko dira Mediterraneoko portu ezberdinetatik Palestinara. Helburuak Gazako setioa apurtzen laguntzea, laguntza humanitarioa ematea, eta Gaza berreraikitzen laguntzeaz gain, herri palestinarrarekin elkarlanean "babeserako presentzia zibil iraunkor eta espezializatua" ezartzea dira. Hor jarri nahi izan dute indarra, hain zuzen. Azaldu dutenez, armatu gabeko babes zibilak zabalduko dituzte komunitate palestinarrekin batera lan egiteko. Indarkeria geldiarazi, urraketak dokumentatu eta tokiko babes-mekanismoak eta erantzukizunak indartzea izango dute ipar, Israelgo erregimenak zibilen eta azpiegi-

tura zibilen aurka egindako etengabeko erasoen artean.

Azpimarratu dute erakundeek eta gobernuak "huts" egiten dutenean, jendeak "erantzun" egin behar duela. Saif Abu-keshek, GLFko kideak adierazi du misioa erakundeen "porrotari" erantzutera datorrela: "Erakundeek beren betebeharrak eta moralak bertan behera uzten dituztenean, jendeak erantzukizun hori izan behar du". Antolakundetik gaineratu dute setio eta genozidioari bakarrik aurre egin behar zaion komunitaterik ezin dela egon.

1.000 OSASUN LANGILETIK GORAKO EREDU ZIBILA

Flotillan osasun arloko 1.000 profesional baino gehiago joango dira, botikaz eta osasun-ekipamenduz hornitutako ontzietan. Gazako mediku sarearekin elkarlanean jardungo dutela iragarri dute, larrialdietako arreta indartzea eta etengabeko bonbardaketek suntsitutako osasun-sistema egonkortzeko asmoarekin. Halaber, nabarmendu dute flotillaren balioa ezartzen duen aurrekarian datzala. Nazioarteko zuzenbidean, printzipio humanitarioetan eta palestinarren lidergoan oinarritutako, eta zibilek gidatutako eredu sortzea dute helburu. ●

Esku pilotaren norabidearekin kezkatuta

 JON TORNER ZABALA

Pilotarien Elkarteak, zeinak biltzen dituen Aspe eta Baiko enpresetako pilotariak, agiria plazaratu du. "Kezka" agertu dute esku pilota profesionalaren kudeaketa hartzen ari den norabideagatik, frontoiak bete eta zaleen erantzuna "apartekoa" den garaio-tan, protagonista nagusien -pilotarien- eskaerak ez direlako aintzat hartuak.

"Diru sarrerak handitzen ari diren bitartean, ikusten ari gara plantillak murrizten direla, partida kopurua gutxitzen eta kirolaren garapena mugatzen", diote kirolariek, enpresak interpelatzeko dituen *Pilota frontoiak betetzen ari da, barrutik hustutzen den bitartean* izeneko agirian. COVID-19aren aurretik enpresa bakoitzak 25 pilotari izatetik gaur egun 21 izatera igaro izanak ondorio argiak dituela diote: "Ezin dira bajak behar bezala estali, ordezkapenak egin, eta jaialdi askotan ez dira hiru partida jokatzeko, nahiz eta horretarako konpromisoa hartua izan".

Egoera honek bereziki pilotari gazteeni egiten die kalte, "gero eta gehiago" eskatzen zaielako "gero eta denbora gutxiagoan", kexu dira pilotariak, "egokitzeko, ikasteko eta hobetzeko benetako tarterik gabe". Pilotak prozesu bat eta prestakuntza behar dituela diote, eta gaur egungo ereduak kontrako norabidean egiten duela. "Horrek, pilota afizionatuek ere eragina du, aukerak zabaldu beharrean, ateak ixten ari direlako".

Nabarmendu dute pandemian ahalegin handia egin zutela pilotariek, "murrizketa handiak onartuta, jarduera arduratsu eta eredugarriarekin, gatazkarik sortu gabe, egoera normaltasunera itzultzean ahalegin hori kontuan hartua izango zelakoan". Aitzitik, kezka horien bueltan hitz egiteko hainbat bilera egin dituzten arren, adierazi dute sentsazio bera izan dutela beti: "Ez zaigu entzuten eta ez da benetako aldaketarik gertatzen. Horregatik, pilotaren etorkizunean soilik pentsatuz, agiri hau publiko egitea erabaki dugu".

Argi utzi nahi izan dute ez dela aldarrikapen "pertsonal" bat, "gogoeta kolektibo bat" baizik". ●

BERRIKETA GUTXI

Sehaska-kanta



IMANOL EPELDE PAGOLA
27zapata.eus

Segurtasuna ematen digute erritu txikiak: eguneroko kafea kikara berean hartzeak, lo ohe berean ohiko ohaidearekin egiteak. Arnasa hartzen uzten digu soldata egun berean jasotzeak, kale-argiak ohiko orduan pizteak, etxeko atea bi bueltarekin ixteak, ezkaratzeko txirrinak eta Securitas Directek. Arnasa hartzen uzten digu denak bere tokian jarraitzen duela sinesteak.

Bankuek ere segurtasuna eskaintzen digute. Gure diruak han daude, seguru. Autoa aseguratuta daukagu. Etxea ere bai. Nahi izatera, baita bizitza bera ere. Eta horrekin nahikoa ez bada, pentsio plan bat. Segurua. Errentagarritasun handikoa. Erretreta hartzen duzunean iragarki batean bezala bizi zaitezten: eguzkia ezkerrean, irribarre infinitua, kezkarik eta izerdik usainik gabe.

Medikuak ere segurtasuna ematen digu. Analisiak ondo daude, azken TACak ez du ezer atzeman. "Ondo zaude". Egon lasai. Gauza bera esaten digute beste batzuek ere: Poliziak, Europak, eskolako WhatsApp taldeak. Patxada ematen digu telefonoarentzat kargagailua eramateak, entxufe bat tabernako paretan libre egoteak. Hipoteka bat elkarrekin hartzeak. Bakardaderik ez duzu sentituko horrela. Euriborrak kulunkatuko zaitu sehaska-kanta batean, hurrengo urte batzuetarako.

Maite dugu araua, kontratua, lotura. Beldurtzen gaitu ezegonkortasunak: zer izango garen ez dakigunean, ez dakigunean nork eutsiko gaituen. Segurtasunik gabe, dena da mehatxu: albisteak, auzokide berria, isiltasuna bera.

Horregatik bizi gara dena kontrolpean izatearen ilusioarekin: agenda betea, egutegia kolorez markatua, planak, entrenamenduak, dieta zorrotzak. Baina, nahikoa da detaile nimeni batek huts egitea, egitura osoa dantzan jartzeko. Segurtasuna gauza handiek ematen digutela sinetsarazi digute. Baina, gauza txikiak dira, isilean, protestarik gabe, egunerokotasuna bere tokian mantentzen dutenak.

Haizeak pixka bat jotzen duenean, ikusten zaizkio azpiak egjari. Zuei ez zaizue gertatzen? Zuei ez zaizkizue pintzak motiborik gabe desagertzen? ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Amonaren etxea



ULA IRURETAGOIENA

Amonaren etxera bizitzera joanen banintz, zer aldatu eta zer mantenduko nukeen gogoeta partekatzea otu zait. Amonarik gabeko etxean, amonaren presentzia bizirik baitago etxeak gordetzean duen materialtasun eta espazialitatean. Egur ilunezko armairuak, oihalak leihoetan eta altzarien gainean, paperez eta gotelez estalitako paretak, moketak logelaren batean, zatika berritutako zoru eta pareta lerroak, sinismen katolikoari lotutako objektuak, moldaturak sabaietan, ateetan eta zokaloetan. Bizimodu baten lekuko ere bada, erre-zibidorearen garrantzia bizilagunaren aurrean, sukaldeko bizitza, bizitzaren fase desberdinak etxeari eskatu dizkion egokitzapenak. Gaur egunean amonaren etxean sartzeak garai baten dekorazio joerak, objektuak eraikitze modu bat eta materialtasunari ematen ziztaion balio jakin baten bizipena bat-batean kolpep sentitzera behartzen zaitu.

Etxearen zenbait txokok posible egingen dute filmetako irudiak berreraikitzea. Zeren objektu eta materialekin batera, amonaren etxeak gurekin daramagun bizitza-uneekin du lotura. Sukaldeko mahaian tomate botiletan sartzea, amonaren ibilkerak geldoa pasilloan zehar, oheko izaren hoztasuna, sofa inguruko hizketaldiak, beirazko kopak jantokiko ontzitegian garbi gordeta, terrazako landare eta lore pote guztien ureztatzeko patxada.

Amonaren etxean edozein esku-hartze mota egitea denboraren igarotzearekin ariketa (eder bat) egitea da. Joera nostalgikoarekin (materialtasuna bere horretan gelditzea nahia) konektatzea gizatiarra bada ere, hain justu denboraren oinarria aldaketarena bada, gakoa da iraganeko denborarekin nola nahi dugun erlazioa eta gaurkotasanak nola eragingo dion erlazio horri zehaztea. Harreman material eta espazial berri bat sortu beharko da amonaren etxekoarekin, baina ezinbestean emaitzak aldaketak ekarriko ditu. Ohitura bat berreskuratu daiteke eta baita errepikatzerik nahi ez dugun egoera bat ekidin ere, eta dena izango da amonaren etxearen oroimen omenaldiaren parte. ●



DANI BLANCO/ARGIA CC-BY-SA

Aisia, noren bizkar?

MARIA ORTEGA ZUBIATE

Din dan don eta din dan don; eta bien bitartean, gora txanpaina eta gora ardoa. Gabonak dira eta badago jendea gustatzen zaizkiona, badago jendea gorroto dituen, baina guztiek ikusiko dute elkar kalean, tabernan. Eta elkarrekin topo egin eta ohiko lau galderez harago badoa hizketaldia, sakon jarriko dira, euskararen gudariak. Izan ere, gero eta euskara gutxiago entzuten da tabernetan, eta ez da kasualitatea; zerbitzarien soslaia begiratu besterik ez dago asmatzeko non dagoen euskararen galeraren gakoa. Aurreko esaldia ez da gutxi entzundakoa Euskal Herriko arnagune ez gutxitan. Kasuak bertsuak dira izan Markina-Xemein edo izan Azpeitia: herri euskaldun eta ustez aurrerakoietako tabernetan, eta beraz kaleetan, euskara presentzia galtzen ari da, herriaren arima den horretan euskaraz ez dakien jendea dagoelako lanean.

Horraino, analisisa nahiko konpartitua da. Hortik aurrera, berbaldiek tonu askotarikoak hartzen dituzte: batzuk kezkatzen dira hizkuntzagatik eta neurriak hartu beharko lirakeela uste dute, hots, euskaldunak kontratatu; besteek arrazakeriatzat jotzen dute aipu hutsa, eta euskararen aurretik pertsonak daudela aldarrikatzen dute. Baina gutxi, oso gutxi, begiratzen diote beren zilborrari eta onartzen dute agerikoena: barra barrukoak dena delako hizkuntzatan mintzatzen direla ere, horren inguruan hausnarrean dabilzanak, alegia barra kanpokoak, direla egoera hori sortzen dutenak. Azal dezadan esandakoa.

Hego Euskal Herrian lan eskubideen arloan aurrerapausoak ematen ari dira. Sindikatuek daramate batuta, eta erakundeek eta patronalak atzetik, oso atzetik jarraitzen diete; baina ari, ari dira. Asteko lanaldia jaistea mahai gainean jarria du aspaldi Espainiako Gobernuak Sumar alderdiak; euskal gehiengo sindikalak iragarri berri du gutxiengo soldata propio baten alde egingo duela greba martxoan, Eusko Legebiltzarrak proposamen horixe beraxe zuen herri ekimen legegilea baztertu ondoren. Kontziliazioa garrantzia hartzen ari da, behingoagatik, gizartearen ahotan. Kontua da eskubide horiekin zer egiten den.

Zeren, inor engainatu nahi barik, Hego Euskal Herrian aisialdia estuki dago lotuta ostalaritzara. Eta aisialdiko orduak areagotzen diren heinean, gauza bera egiten dute ostalaritzakoek; eta batzuek eskubideak eta aisialdirako eskubidea aldarrikatzen duten heinean, beste batzuen desorduetako kondena sinatzen dute. Eta askotan, bataren eta bestearen artean, barraren alde bataren eta bestearen aldean, ez dago ezberdintasun handirik, ez bada batek papera duela eta besteak hori duela desio. ●

2

hilabeteen, abenduaren 26tik otsailaren 26ra bitartean, abere azokarik ezin izango da egin Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Eusko Jaurlaritzaren aginduz. Helburua da behiengan eragina duen dermatosi nodular kutsakorra heda dadin eragozte. Idi demak ere debekatu dituzte.

3.500

pertsonatik gora hil zituen frankismoak Nafarroan. 2016tik desobiratu diren 138 gorpu edo gorpuzkietatik 47 pertsona identifikatu dituzte DNA bankuaren bitarte, 2015etik desobiratutako frankismoko biktimen %30.

400

euroko isunarekin zigortu du Ertzaintzak Donostian BCCren egoitzaren inaugurazioan egindako protesta. Mobilizazioaren komunikazioa izenpetu zuen Satorralaiako kideari ezarri dio isuna.

“Argi dugu ikastetxean bertan sukaldea eraikitzea dela elikadura osasuntsuagoa eta iraunkorragoa lortzeko lehen urratsa”

EHIGE

Deia luzatu die ikastetxeei Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari eska diezaioten eskola-jantokirako sukaldea eraikitzea bakoitzak bere eskolan.

ARGIA.EUS (2025-12-24)



“INSTITUZIOEK FEMINISMOTIK BARNERATU DUTEN BAKARRA MARKETINA DA; EZ DUTE BETETZEN ATZEAN DAGOEN BALIABIDEEN BEHARRA”

MIREIA SAIZ

Argitan emakumeentzako aholku etxeko kidea hala mintzatu da, Barakaldoko emakumearen hilketa salatzen elkarretaratzean.

2025-12-23

“Venezuelaren kontrako boterea da proiektu subirano, herrikoiei eta sakonki gizatiar baten existentzia onartzeko gai ez den inperio baten adierazpen desesperatua”

**FUERZA PATRIOTICA
ALEX VIVE
ANTOLAKUNDEA**
ARGIA.EUS (2025-12-22)



TEKNOLOGIA

Bazterkeria garaikidea



DIANA FRANCO EGUREN

Urtea hastea beti gustatu zait. Bada zerbait nire baitan ezin dudana azaldu, inongo oinarri zientifikorik ez duena, gizadiaren gehiengo batekin lerrokaturia egoteak ekartzen duen ongizateari lotua: urte amaieran izaten dudan sentimendua. Pertsona asko prestatzen gara ziklo bat ixteko eta beste bat irekitzeko. Ez da denboraren banatze eta neurketak hutsa, bizitza Lurraren taupadara egokitzeak lana da, taupada horren eraginik onenak gozatzeko eta gaitzak ahalik eta ongien kudeatzeko. Lurraren eraldaketa taupadari egokitze honi, gizakiok sortu ditugun beste geruza batzuk gehitu behar dizkiogu. Lan horretan, denok ez ditugu eskura gaitasun eta jarrera berdinak.

Lagun nagusi bat dut, ez du smartphonenik, gura bez. Lagunak ortua du, eta hori ematen du eguna goizeko 7etatik ilundu arte, bakarrik. Honakoa esan ohi dit: "Dena asmatuta dago". Bere hitzetan dagoen mezua ulertzen badut ere, gizaki askoren artean harreman moduak eragiteko sortua izan den geruzetako bat, digitala, ulertzeko beharrean sentitzen naizela esaten diot.

Lagunak ez du garai hauek ulertzeko ezta eurretara egokitzeak nahirik, ez ditu gustuko digitalaren baitan gizakion artean ematen diren harreman motak. Bere gaztaroko bizimoduan izoztuta bizitzea erabaki du, artzain zen garaian. Eta ez da bakarria. Pertsona hauek garai bateko mundu-ikuskeraren gordailu biziak, eta baliotsuak, bilakatu dira. Ez ote da bizitza oso konplexua bihurtu eurentzat? Zergatik sortu dugu baztertzaileria den eraldaketa digitala?

Garai batean, bizitza, maitasuna, sor-kuntza, lana, laguntasuna, harremanak, lurra, gaixotasuna, osasuna, borroka, liskarrak, heriotza... gidatzeko iparrorratza zuen. Konturatu orduko, mundu hori lar txikia bilakatu zaiolarik, inoiz bilatu ez zuen zaurgarritasunean murgilduta aurkitzen da. Adinaren berezko gainbeherari lotuta, nagusi askok egun jasaten duen isolamenduak Neandertalen iraungipena ekartzen dit burura. Eurak bilatu ez zuten bazterketa pairatu zuten, ulertu edo nahi izan ez zuten modernitate baten esku. ●

NAZIOARTEA

Ijitoen kontrako hauteskunde-kartelak, debekatuta

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

"Ijitoek legea bete behar dute" dioten hauteskunde-kartelak hogeita lau ordutan kendu ezean, kartel bakoitzagatik eguneko 2.500 euro ordaindu beharko ditu Chega alderdiak. Arrazakeria eta xenofobia alderdi ugariaren diskurtsoetako eguneroko ogia den garaiotan, pozez hartu du erabakia akusazioa abiatu zuen abokatuak.

Urtarrilaren 18an hauteskunde presidentzialak dituzte Portugalen, eta kanpaina betean dira. Testuinguru horretan, Lisboako epaitegiko Ana Barão epaileak ebatzi du Chega alderdiaren karteletako esaldia "larria" dela, "aurrez gogoetatua izan delako, ez da izan eztabaida politiko batean berotuta esandako zerbait, eta pentsatua izan delako inpaktu sozial jakin bat sortzeko, inpaktu negatibo bat, talde etniko bat diskriminatzeko duen heinean". Kartelaren atzean ideia diskriminatzailerak eta gutxiengo etniko baten aurkako erasoa ondorioztatu ditu epaileak: "Kartelak mezu inplizitua da ijitoek ez dutela legea betetzen". Etorkizunean, eduki bera edo antzekoa duten kartelak jartzeko edo sustatzeko debekua ere ezarri dio epaileak alderdiari.

Sei pertsonak alderdiaren aurka jarritako akusazioaren abokatuak adierazi du ebazpenak "herrialde bidezkoagoa eta zintzoagoa izaten laguntzen" duela eta "ijito herriaren erresistentziarako garaipena" dela.

André Ventura da Chega alderdi ultraeskuindarreko burua, eta hauteskundeetarako hautagai faboritoetako bat, inkesten arabera. Erabakiaren aurrean zentsura salatu du Venturak, eta helegitea jartzea aztertuko duela adierazi du. "Gure demokraziarentzat egun txarra da, askatasuna ez delako ziurtatu, eta azken hamarkadetan ulertu zutenak nahi zutena egin zezaketela pribilegioz

eta inpunitatez, bereziki ijito komunitateak, gaur pribilegio eta inpunitate hori sendotuta sentitu dutelako", gaineratu du. Hain justu, mezu berria argitaratu du sare sozialetan, epailearen ebazpena bere aldera ekarrita: "Azkenean, badi-rudi ijitoek ez dutela zertan legea bete".

Ez da berria, arrazakeriak eta xenofobiak botoak ematen ditu, eta hori baliatzen duten alderdi eta politikariak ez dira gutxi. Baina denak ez du balio, eta adierazpen askatasunaren izenean gorroto diskurtsoak zabaltzea ez da zilegi. Gurean, Javier Maroto Gasteizko alkate ohia izango da, ziurrenik, kasurik ezagunenetakoa: gizarte-laguntzetan iruzur egitea leporatu zien aljeriar eta marokoar komunitateei, eta diskurtso xenofoboa hauspotzean oinarritu zuen bere kanpaina. Erantzun herritarra etorri zen berehala, eta Gora Gasteiz mugimendua jaio zen, Marotoren diskurtsoak gezurtatu eta Gasteiz anitza aldarrikatu asmoz. ●

AFINAL, PARECE QUE OS CIGANOS NÃO TÊM DE CUMPRIR A LEI



CHEGA

Imajina dezagun Olentzero

AMAIUR ARISTI ARREGI / DANTZAN CC BY SA



Espektakuluaren eta irudiaren gizartean hurrei altxorrik ederrera kendu diegu: imajinazioa. Gabonetako oparirik onena horixe izan zitekeen, baina ez! Behar ez dituzten jostailuz eta heteronormarekin guztiz bat egiten duten Olentzero-Mari domingi tandemaz ordezkatu diegu.

Ahoz ahoko transmisioan zegoen hori gorpuzteko beharra dugu azkenaldian: mozorro, panpin, ipuin, pelikula... Olentzeroren mitoa horren adibide. Urteak dira Olentzero, bere gorpuzte eta haragi, agertu zitzaigula. Eta horrek ekarri zuen gure iruditeria bateratzea.

Aurretik panpinak ziren. Olentzero panpinak eta pertsonifikatua ez dira bateraezinak, nik uste bakoitzak baduela bere target-a edo publikoa, batez ere adin tarteari dagokiona; baina bat aukeratu beharko balitz nik ez dut dudarik: panpina (imajinazioarako, kooperatibismoarako... bidea ireki baitezakete). Baina hori altuan esan eta segituan aztoratzen dira gurasoak: "Baina Olentzero pertsonak ere etorri beharko du ba, nola kenduko diegu ba umeei ilusio hori?", "Zer esan behar diegu hurrei, bidean galdu dela?".

Erraza da. Iluntzean, afaltzen gaudela edo lotara joaten garenean pasako dela Olentzero gure etxeetatik (Pasa behar duela erabakitzen badugu. Beste aukera

Gezur kolektiboa horren bisuala da, lilura eta indarra galdu baitu. Magiarik onena, dudarik gabe, norbere buruan dagoena

bat baita nahiko gauza ditugula ikusarazi eta opariei uko egitea). Dena eginda eman beharrean utz diezaiegun umeei pixka bat imajinatzen. Nik umetan ez dut uste sekula Olentzero pertsonan ikusi nuenik, baina ez pentsa ilusioa falta zitzaidanik. Gutuna aurreko egunetan Correos-eko buzoira botatzen nuen eta egunean bertan urduri egoten nintzen iluntze aldera etxe inguruan berarekin topo egingo ote nuen edo. Afariari kasu handirik ez nion egiten, leihotik begira-begira ibiltzen nintzen, ataritik pasatzen ikusiko ote nuen edo. Eta bat-batean: pun, pun pun! Eta denak isilik, niri begira. Olentzero etorri da! Despistatzen nintzen batean osaba igotzen zen ganbarara zarata pixka bat egitera eta ni beldurtuta lehengusu zaharrragoen atzetik poliki-poliki eskaileretan

gora. Uau! Otarra opariz beteta. Olentzerorik ikusi gabe eta berarekin argazkirik egin gabe, baina otarra hura ongi grabatua dut memorian, baita nik nire buruan sortutako Olentzero ere.

Haurrari amesten eta imajinatzen utziz gero hegan egin dezake. Guk Olentzerori etxea ere ipini genion. Etxe aurreko mendian erdi erorita dagoen baserria beti izango da niretzat Olentzeroren etxea. Eta ez han eta hemen negoziarako sortu dituzten Olentzero eta Mari Domingiren PortAventura kutreak. Orain kuriositatea sartu eta mapan begira hasi naiz, badirudi nire haurtzaroko ilusioekin batera erori zela etxea ere. Ez dut aurkitu.

Uste dut Olentzero ez etortzea haurrena baino helduen arazoa dela. Seguru nago umeei lasai pasako dituztela Gabonak Olentzero ikusi gabe, baina ez. Turroia bezala, pare bat hilabete lehenago hasiko da agertzen iragarkietan. Telebistan 10 bat Olentzero ezberdin ikusiko dituzte, Olentzeroren hiru etxe bisitatuko dituzte, eskolara etorriko zaie bisitan eta, halako batean, Gabon gauean azkena, "benetakoa". Ordurako Olentzero gaindositia dute hurrek eta dagoeneko zer bait sumatzen hasiak dira. Gezur kolektiboa horren bisuala da, lilura eta indarra galdu baitu. Magiarik onena, dudarik gabe, norbere buruan dagoena. ●

UR BALIABIDEA ONGI KUDEATZEKO, IRANGO BURUZAGITZAK ERAKUTSI DIGU EGIN BEHAR EZ DENA

Iran, batez ere Teheran hiriburua, ur eskasia larrian da. Hainbeste, non eta autoritate gorenak hiriburua tokiz aldatzea mahaigaineratu duten. Egoera horretara heldu dira hainbat hamarkadetako ur kudeaketa desegokiaren ondorioz, eta erabaki desegokiaren ondorioak larritu dizkie klima aldaketak azken urteetan. Muturreko adibide horrek ongi erakusten digu ekosistemen funtzionamendua aintzat hartzearen ezinbertzekotasuna.

 NICOLAS GOÑI

Euria egin du Teheranen (Iran) abendu hasieran. Gertakari arrunta guretzat, baina bertakoek eguraldi aldaketak hura eskertu zuten, nahiz eta oraindik euri askoz gehiago beharko lukeen. Herrialdea lehorte historikoa igarotzen ari da, "azken 100 urteotan ia aurrekaririk gabekoa", zioen arduradun batek urrian. Klima lehorreko eskualde hartan euri guti egiten du, eta udazkena izan ohi da euri urtaroaren hasiera. Alta, joan den udazkenean Teherango ura hornitzen duten bortz urtegiatarik batek kapazitatearen %1 baizik ez zuen duela guti arte, bertz batek %8 eta bateenak %32 bakarrik. Hain da larria egoera, Masoud Pezeshkian presidenteak Teheran tokiz aldatzearen alde hitz egin zuela azaroan. Aurreko gobernu batzuek jadanik aipatu zuten aukera hori, baina Pezeshkianek zioen jada ez dela aukera soila, baizik eta ezinbertzekoa. Zeruko ura eskas izateaz gain, lurpeko ur erreserbak ere agortzen baitzaizkio 15 milioi biztanleko hiriburuari.

LURRALDEA HONDATZEN ARI, LITERALKI

1979ko iraultzatik –eta horren ondorengo nazioarteko zigor eta isolamendu ekonomikoak bultzaturik– du Irango buruzagitza elikadura burujabetza xedetzat hartuta. Egokia zen xedea, ez hainbertze, aldiz, xede horretara iristeko modua.

Iraultzaren gidari espiritualek axola guti zuten zientzialariek errandakoaz, eta urtegiak, erreken desbideraketak eta zulatzak biderkatu zituzten, ura baliabide mugagabea balitz bezala, obrek ura behar zen tokira ekartzea aski zelakoan. Hidrologo irandarrek halere aspaldidanik alarma jo zuten: lurpeko ura axolagabe eta mugagabe erauzteak albo-kalte larriak ditu. Aurreikusgarriki, obra horien albo-kalteak ere biderkatu ziren: aintziren desagerpena –horietatik azkena Urmia izenekoa, herrialdearen ipar mendebaldean zena, 6.000 km² zituena eta aurreko guziz lehortu dena–, lurpeko ur erreserben agortzea eta uren gazitzea.

Uren agortzeaz eta gazitzeaz gain, ur erreserben eduki fisikoa ere kaltetu du lurpeko uren erabiltze axolagabeak: ur gehiegi kenduta, lurra konprimatu eta hondatu egiten da, atzerabide laburrik gabe. Horren ondorioz Irango erdialdeak garaiera galtzen du, urtean 35 zentimetroko abiaduran, Mahmud Haghshenas Haghighi eta Mahdi Motagh geologoen arabera. Akui-feroak sukaldeko belakia bezain elastikoak ez dira, lehertu eta berriz bustiz gero, ezin dira segituan hanpatu: urtean 1.700 milioi metro kubo ur galtzen dira, ur hori eduki zuen lurra trinkotzen da –trinkotze hori euriteen ondorengo hanpatzea baino 10 bider handiagoa delarik–, eta horrek akuiferoen epe luzeko galera eragiten du. Lurrarentzat ez da atzerabiderik gabeko fenomeno, baina praktikan, gizakiarentzat, bai: Mohammad Darvish geologoaren arabera, 70.000 urte inguru beharko lirarteke Irango lurpeko ur baliabideak berrosatzeko. Bitartean, otordu asko prestatu beharko, baina nongo urarekin?



LEHORTEA Irango Hamun eskualdean hezeguneak baziren, Helmand erreka elikatzen zutenak, tokiko laborantza ahalbideturik. Gaur egun, azpiegiturretan inbertsio handiak egin arren, ura asko urritu da. Argazkia: Wikipedia

KLIMA ALDAKETAK AURREKO ARAZOAK LARRITZEN DITU

Klima idor hartan ur baliabide mugagabea menperatzearen ilusioak hautu txarrak bultzatu ditu laborantza politiketan, bereziki ur behar handiak dituzten laboreen garapenarena (beterraba, pistatxondoa –mundu pistatxo ekoizpenaren herena Irandik dator–, mota anitzeko frutondoak, baita arroza eta angurria ere). Denboraldi berean, herrialdearen hiriburua modu jasanezinean handitu da, baina horren azpiegiturak eta ur baliabideak ez dira abiadura berean handitu. Baliabideen eta beharren arteko tentsio horren ondorioz, ur hornidura eteteak gertatzen dira askotan Teheranen, egoera azken hilabeteotan kritikoa bilakaturik.

Egoera hauskor horren gainera dator klima aldaketa, hauskortasunak larritzen. Herrialde guzietan bezala tenperatura igo da Iranen, baina bereziki azkarki 2000

urtetik hona, beroketa horrek lurruntzea emendatu duelarik lurralde osoan. Bero-tzeaz gain, lehortu ere egin da lurraldea: historikoki, beti egon dira lehorte garaiak eskualde hartan, baina gero eta maizago gertatzen ari dira, eta ur baliabidea berrosatzeko denborarik ez dute uzten.

Ur kontsumorako eredu neurritsuagoa garatu izan balute, eta horrekin batera ur baliabidea babesteko neurriak hartu, orduan ere berotzeak eta lehortzeak arazo izaten jarraituko lukete, baina kudeagarriagoak izanen lirateke, konponbideak martxan ezartzeko tartea utzita. Zoritzarrez, orain arte emandako erantzun bakarrak hidraulikoak eta epe laburrekoak izan dira. Adibidez, Teherandik 160 kilometrotara den Taleqan barrutiko urtegitik ura ubidez hiriburura ekartzea. Kuantitatiboki aski ez izateaz gain, arazoa tokiz aldatu eta desorekak handitu baizik ez ditu eginen.

URAREN ZIKLOA ONGI ULERTU, AKATSAK EZ ERREPIKATZEKO

Iran ur kudeaketa txarraren muturreko adibidea da, baina, ez da munduan bakarra. Emma Haziza hidrologo frantsesak oroitarazten du Indian, historikoki, eskualde gehienetan beti zegoela ura, eta aurkitzen zela lurra lau metro baino gutxiagora zulatuta. Gaur egungo eskualde batzuetan, aldiz, 500 metrotara zulaturik ere ez da aurkitzen. Horrek merkatu berri bat ireki die: oraindik ur aski duten lursail ttipien jabeek laborantza ekoizpena saltzeaz gain –edo saldu baino– ura saltzen dute egunero joan-etorrika ikusten dituzten zisternakamioikoei. Halako kamioiak ugaritu dira, ur eskasiari aurre egiteko behin-behineko konponbide gisan. Soroak lehorturik dituzten hainbat eskualdetatik milaka pertsona erbesteratzen dira hiri handietara. 2024an *Nature* aldizkarian argitaraturiko ikerketa baten arabera, mundu mailako akuiferoen %36 dira urtean hamar zentimetroz apaltzen, %12 urtean metro erdi batez baino gehiagoz, eta hiru herrialdeetan da jaitsiera 1,5 metro baino gehiagokoa: Iranen, Indian eta Espainiako Estatuan.

Euria sortzeko oihanak eta soroak behar ditugula azpimarratzen du Hazizak, horiek baitituzte lur gaineko urak lurruntzen, eta beraz, hodeien sorreran parte hartzen. Zoritzarrez, laguntza baino oztopotzat hartua da gehiegitan lurruntze hori. Espainiako Estatuko hegoaldearen adibidea aipatzen du, non tokika zuhaitzak mozten dituzten lehortaren kontra, zuhaitz ertain batek egunero 1000 litro lurruntzen baititu, eta hori giza beharrekin lehia gisan ulertua baita.

Zuhaitzak moztea lurraldearen idortasun arazoak konpontzeko gisan... ikuspegi horrek ongi erakusten digu zein gaizki ulertua eta zein guti aintzat hartua den ekosistemen funtzionamendua. Ez litzateke hain larri, ekosistema horiek gure biziraupena ez balute baldintzatzen. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Imanol Mitxelena Iragorri

EUSKALDUN JAIO ANBERESEN



EZ ZAIT INTERESATZEN PAPEREAN ZER NAZIONALITATE JARTZEN DUEN, NI EUSKALDUNA NAIZ



Orain bi urteko kontua da. Behin eta berriz eta askotan bezala, ohar egin zigun irakurle zuhurrak, Anberesen den familia euskaldun baten berri emanez. 36ko Gerrak Oiartzundik Belgikara eraman zituen Regina Iragorri Iriarte eta Erramun Mitxelena Berrotaran, eta Anberesen osatu zuten familia. Haien seme laugarrena da Imanol. Anberestarra, gurasoen euskara goxo zahar fosildua du mingainean.

 MIEL.A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Harrigarria ere bada, Anberesen euskaldunak izatea, hantxe jaioak eta euskaraz gu bezain jator mintzo direnak...

Niretzat, berriz, normala da. Gurasoak oiartzuarrak genituen, baina hantxe jaio ginen gu! Hona etorri, eta esaten didate: “Anberesen jaioa, eta euskaraz hitz egiten duzu!”. Erantzuna ere erraza da: “Gurasoak euskaldunak nituen, euskaraz hitz egiten zuten. Bai, erdaraz [gaztelania] bazekiten –eskolan ikasia–, eta frantsesez ere bai, pixka bat, baina euskaldunak ziren eta euskaraz hitz egiten zuten”. Txikitan, akordatzen naiz, guk zerbait ez entenditzea nahi zutenean, erdaraz hitz egiten zioten bata besteari. Gu, anai-arrebok, elkarri flandrieraz egiten geniolari hazi ginen.

Gerrak markatutako historia duzue...

Gure aita jaio zen 1907an, Oiartzunen.

Aita Karrika auzoko baserri batekoa zuen, baina gerra karlisten garaian, karlistek baserria erre zioten: kale gorrian geratu ziren. Herrian bazen palazio bat, [Pablo] Beiner zen hango nagusia. *Suitzarra* esaten zioten gizon hari. Gure aita palazio horren ondoko behitegian jaio zen. Noizbait, Beiner horrek gure aitona handik bota egin zuen, eta, orduan, parrokoaren bitartez, Iturriotzeko Almazene baserrian hasi zen lanean. Ez alferrik, ze gure ama zen auzo berekoa, Garmendi baserrikoa. Bata bestetik 200 metrora zeuden bi baserriak, eta hantxe ezagutu zuten elkar gure gurasoek.

Hara!

Zaude! Garmendin hamasei ume izan zituzten, baina gure aitona bi andrearekin: lehenengoarekin, hiru; hura hil zenean, eta handik hilabetera-edo, parrokoak Er-goingo baserriko neska bat ekarri zion

gure aitonari, bera baino hamabost urte gazteagoa. Huraxe izango zen gure amona. Berak neuri esanda dakit: “Nik gizona ezagutu nuen, ezkontzeko momentuan”. Aitonak hamahiru ume izan zituen bigarren andrearekin: eta gure ama izan zen haietan zaharrena. 1912an jaioa, gure aita baino bost urte gazteagoa zen.

Parrokoa ibili zen tartean...

Bai, seguru da horrela izan zela. Osaba Nikasiok kontatu zidan. Hartu-eman handia neukan Nikasiorekin, eta gure aita hil zenean, bideoa hartu eta elkarrizketa egin nion. 95 urte-edo izango zituen garai hartan, baina burua argi zeukan. Grabatu izan ez banio, galdu egingo zen historia.

Gerra sartu zenean, zuen aita ihes egin behar izan zuela irakurri nuen Orio eta Aiako Karkara aldizkarian [2019, abuztuak 30, 408. zk.]



Imanol Mitxelena Iragorri

ANBERES, FLANDRIA, 1953



Gerrak Belgikara eramandako gurasoen semea. Euskaldun hazi zuten gurasoek etxean Anberesen, eta flandrieraz, berri, anai-arreba eta lagunek hiriko eskola eta kalean. Kimika ikasketak egin zituen jaioterrian, eta bertako unibertsitate politeknikoko irakasle izan da bizi guztian, ikasleei euskalduna dela adieraziz, bere izena esanez eta flandrierara "itzuliz": Emmanuel Michiels(en). Aspal-di handian, familia hartu eta Orion ematen ditu oporrak. Horri esker, aise eutsi dio noizbaiteko euskarari, Oiartzungo hizkeraren ezaugarriekin beti. Anberesen, Hei Pasoep koruaren zuzendari izan da 40 urtean, injustizien kontra mundu guztiko kantuak kantari eta *Txoriak txori*, besteak beste.

EAJkoa zen eta! Halaxe ziren bere kua-drillako denak ere. Ez ziren buruak ere, baina nazionalistak! Gerra sartu zenean, jende mordoxkak ihes egin zuen Oiartzundik. Aita eta hiru anaiak elizako kanpandorrean zeuden, zelatan, tropak [erreketeak] Lesakatik barrena noiz sartuko ote ziren. Eta bazetozela ikusi zutenean, lau anaiak korrika joan ziren eskapo, oinez Hondarribira, lehengusuenera, Jaizkibeldik barrena. Han errepublikanoen kanpamentu bat bistaratu zitzairen, eta esan zieten Hondarribira zihoazela, lehengusuak bisitatzen. Eta ez zituzten troparako hartu. Bestela, akabo!

Hondarribira ere sartu ziren erreketeak...

Baina ez berehala. Denbora pasatu zen Francoren tropak Hondarribira heldu artean, eta aitak-eta hilabeteak egin zituzten han. Tropak Irundik barrena sartu zirenean -lehengusuak arrantzaleak, eta barkuak izaki-, Hendaiara eraman zituzten lau anaiak. Bi urte egon ziren Urruñan eta Azkainen, lehengusu batzuen baserriko lanetan-eta laguntzen, gerra noiz bukatuko zain, etxera noiz joango. Baina gerra gaizki bukatu zen, eta ez zuten bueltatzerik izan.

Esate baterako, anaietako bat, Inazio, bueltan joan zen, eta segituan sartu zuten kartzelara, eskubide zibil guztiak kenduta. Ez zen ongi ibili. Arotza zen, eta ezin izan zuen bere kontura lanik egin. Besterentzako lan egin behar izan zuen. Aitaren aldeko aitona ere kartzelan eduki zuten; beste osaba bat ere -baserrian gelditua-, kartzelara... Gainerako senideak moja eta apaiz ziren, eta libratu ziren.

Hurrengo helmuga, Landak.

Gerra bukatu zenean, eta ezin zutela bueltatu jabetu zirenean, zer edo zer egin behar! Eta Landetan lan egin zuten. Noizbait suteak izanak ziren, arbola asko erreak, eta langileak behar zituzten pinuak botatzeko. Euskaldun asko joan ziren orduan Landetara. Urteak egin zituzten han hiru anaiek -Nikasio, Antonio eta Erramun, gure aita- txaboletan biziz.

Eta 1947 arte izan ziren han. Ama, bitartean, Oiartzunen?

Bai, Arizmendiren etxean, neskame. Palazioa da hura ere, eta hantxe dago etxea oraindik, plazatik bertara. Anjel Arizmendirena zen. Arizmendi abokatu prokuradorea zen, dekanoa, dirutua, eta oso abertzalea. Andrea ere, Juana Aiestaran, bera bezain abertzalea zen, EAJren Emakumeetako zen [Emakume Abertzale Batza]. Esaterako, berak sortu zuen Oiartzunen EAJren Emakume taldea. Francoren tropak Oiartzunen sartu zirenean, hartu Arizmendi jauna, Iruñera eraman eta fusilatu zuten.

Hori ere bai! Eta Arizmendiren alarguna zaintzen gelditu zen zuen ama...

Baina ordurako alarguna oso gaixorik zegoen, oso ahul. Asmak jota bizi zen eta, esaterako, maiz joaten zen Lizarrara, giro sanoago eta lehorrago baten bila. Arizmendik lau alaba zituen, zaharrena Maria Teresa, gure amaren adin bertukoa. 26 urte-edo izango zituen Maria Teresak, eta berak hartu zuen etxearen ardura. Nobioa zuen Juan Mari Agirre, lehendakariaren anaia. EAJren aristokraziakoak ziren, nolabait esateko. Juan Mari eskapo joan zen Belgikara, eta hortik etorri zen gure gurasoak ere hara joatea.

Agirre-Arizmendi haiek Belgikara ihesi joanagatik ere, ordea, nola joan zen zuen ama hara? Eta nola joan zen zuen aita Landetatik Belgikara?

Ihes egindako jendea Gurutze Gorriaren bitartez-eta komunikatzen zen, kartak idatziz. Gurutze Gorriak halako lanak ere egiten zituen: jendearen kartak bideratu, errefuxiatuak biltzeko modua egin... Behin, esate baterako, gure gurasoek Irungo zubian elkar ikusi zuten. Hitz egin zuten, eta handik lasterrera gure ama Sarara joan zen, Etxalarretik barrena, aitarekin egotera, zer egin erabakitzen. 1947an-edo izango zen hori. Eta erabakia hartu zuten, nonbait, eta Arizmendiko alabak Belgikara joateko pasaportea ateratu zutenean, gure amari ere ateratu zion, neskame zihoala adieraziz.



Ari gara litsak ateratzen...

Juan Mari Agirre eta Maria Teresa Arizmendi 1947an ezkondu ziren, eta urte hartako irailean gure aita Anberesen zen. Pentsatu ere ez amarekin batera bizitzen jartzea oraindik, eta gelaren bat-edo inguratu zuen han edo hemen. Paperik gabe ibili zen hainbat denbora. Orain dela urte batzuk, gure aitaren agiri zibilen bila ibili nintzen, eta jakin nuen Anberesera heldu zenean bertan ibiltzeko hiru hilabeteko baimena eman ziotela. Gero, epea bukatu zenean, berriz eskatu zuen baimena –bateko abokatu, besteko epaile...–, eta dokumentu bat daukat non polizia buru batek beste bati eskatzen dion mesedez gure aitaren kasua ondo aztertzeko, zergatik “euskaldun hauek jende ona dira”; horixe esaten du frantsesez, kristau onak zirela eta hau eta hura.

1947an ezkondu ziren zuen guraso izango zirenak Anberesen.

Ez ziren Anberesen ezkondu, Donibane Lohizunen baizik, Nikasio eta Antonio beste familiakorik gabe. Eta gurasoak ezkontzen ari ziren aldi berean, Oiartzunen ezkontza-meza esan zuen bertako apaizak. Frankista omen zen, baina meza hura behintzat egin zuen! Amaren ahiz-

pak esan zidan behin, Oiartzungo hura benetan izan zela ezkontza-meza, baina ezkontiderik gabe egin behar izan zutela! Gero, betikoa, bazkaria eta festa egin zituzten Garmendin.

Zer bizimodu egin zuten gurasoek Anberesen?

Aitak unibertsitatean egin zuen lan, sukaldean, baina ez sukaldari, ontziak garbitzen baizik. Aita ez zen eskolatua, baina pertsona inteligentea hala ere. Landetan baso-mutil ibili zen garaian, frantsesez ikasi zuen, eta horri esker salbatu zen Anberesen. Ama Agirre-Arizmendirekin joan zen neskame, baina ezkondu eta laster utzi zion egiteko hari. Hala ere, beti segitu zion haien etxera joateari. Sukaldari abila zen, eta Maria Teresaren etxean afari handiren bat-edo zutenean, hantxe zen beti. Gainera, ia parez pare bizi ginen bi familiak, kale berean, Elena *avenue*-n –baina nik Mitxelena *avenue* esaten nuen beti—, gu 11. zenbakian eta haiek 18.ean.

Eta etorri zineten mundura sei anai-arreba. Zu 1954an jaioa, bosgarrena zaitugu.

Baina hor bada historia triste bat... Amak 35 urte zituen ezkondu zenean; aitak

40. Ezkondu eta hamar hilabetera lehen haurra jaio zen: Miren Garbiñe. 1950ean, bigarren alaba jaio zen. Ama urtarrilaren 5ean ospitalera joan zen, eta biharramunean, lehen alaba hila zela esatera joan zitzaizkion. Hesteetako gaitz bat, nonbait, garai hartan oso arraroa, eta hil zen. Amak sekula ez zuen heriotza hura gaingitu. Bada, bigarren ume hari, Miren Garbiñe izena jarri zion: bigarren alabak lehenbizikoaren papera jokatu behar izan zuen. Trauma izugarria, amarena. Gau-mahaian beti eduki zuen argazki bat, lehenbiziko umearena: “Hauxe zen gure aingerua” esaten zuen. Bost gara, baina sei izan ginen. Hamabost hilabetero, haur bat egin zuen amak: Miren Garbiñe, Miren Garbiñe berriz ere, Joseba, Andoni, Imanol eta Elixabet gara, edo izan gara.

Abertzalea behar du!

Belgikako erregistroan halaxe gaude. Baina Espainiako kontsulatuan ez. Han *Manuel*, *Antonio* eta halakoak ageri dira, baina gu euskaldunak gara, txikitan euskaraz besterik ez genekien. Parbulariora hasi nintzenean, ez nekien flandrieraz, hantxe ikasi nuen. Anai-arrebak beren artean flandrieraz hasi ziren, eta ni ere bai, eta gure artean halaxe hitz egiten dugu. Hala ere, euskalduna naizela sentitu dut beti, Anberesen jaioa izanagatik ere. Aitak ere horixe esaten zigun beti, euskaldunak ginela.

Noizbait, Oiartzuna etortzen hasi zen familia...

Lehenbiziko aldiz, nik 3 urte nituela etorri ginen, 1957an. Ez dakit zer izan zen, baina kanpoan bizi zirenak kastigurik jaso gabe etxera bueltatzeko modua-edo egin zuen Francoren erregimenak. Aitak hogeitau urte pasatu zituen Oiartzuna ezin bueltatuta, baina akordatzan naiz ordurako guk euskaldun izateko sentimendua genuela: hizkuntza sekretu bat geneukan, gure familiak beste inork ez zekien hizkuntza, Anberesen beste inork hitz egiten ez zuena. Oiartzuna etorri ginen, jabetu ginen hizkuntza hartan hitz egiten zuela jendeak.

Alabaina, flandrieraz hazi zinen. Hizkuntzak identitatea ardazten dutela diote.

Ni ez naiz behin ere flandriarra sentitu, gauza arrotz bat bezala sentitzen naiz Anberesen. Euskalduna naiz, baina Anberesen jaioa naiz, han bizi izan naiz beti, eta euskalduna bai, baina, askotan, mitxelena-iragorritarrak “euskaldun bereziak”

garela pentsatu dut. Etortzen naizenean, ez naiz etxean bezala sentitzen: zertxobait kanpotarra. Esate baterako, badakit zer den hemengo lagun-giroa, baina ez dut bizitu. Kulturalki, hangoa naiz, flandrieraz perfektu hitz egiten dut, unibertsitateko profesorea izan naiz, baina ez naiz flandriarra, euskalduna naiz. Anai-arrebek ere euskaldunak direla sentitzen dute. Ni baino gutxiago etorri dira hona eta nik baino okerrago hitz egiten dute orain euskaraz. Baina euskaldunak dira.

Aldiro-alldiro Euskal Herrira etortzeak lagunduko zizun, beharbada.

Dudarik gabe. 1957an lehen-biziko aldiz etorri, eta bi-hiru-lau urtero etortzen hasi ginen. Tradizio bihurtu zen gure amarentzat. Ateratzen zen Anberesen trenez bost ume ttikirekin, eta Parisera, Paris Nord geltokira. Handik Paris Austerlitzera, autobusez edo taxian. Akordatzan naiz Parisen bazela emakume bat –oiartzuarra uste dut; euskalduna, behintzat, seguru, baina ez dakit haren izenik–, eta etortzen zitzaiola amari, guri tren-geltoki batetik bestera joaten laguntzeko. Akordatzan naiz zazpi ordu zain egon behar izaten genuela geltokian, eta gu hantxe, geldirik egon behar izaten genuela, amak ez zigulako kanpora irteten uzten, handik irtenez gero galduko ote ginen beldurrez. Parisetik, Irunera etortzen ginen. Osabak gure bila etorri, eta Oiartzunera. Aita ez zen gurekin batera etortzen, handik hamabost egunera baik: oporrak hartzen zituen, eta abuztua



Anai-arrebak beren artean flandrieraz hasi ziren, eta ni ere bai, eta gure artean halaxe hitz egiten dugu

elkarrekin pasatzen genuen Oiartzunen.

Ez diozu Euskal Herrira etortzeari utzi. 25 urte daramatzazue oporretan Oriora etortzen. Zer dela-eta Oriora?

Samurra da hori. 13 urte konplitu nituenean, anaia Andonirekin etorri nintzen. Oiartzunen pasatu genuen udara guztia, amaren anaiaren baserrian. Harrezkero, urtero etortzen hasi ginen. Eta ezkondu nintzenean, umeak izan baino lehen ere, Kristel [Imanolen andrea] eta biok Oiartzunera etorri ginen. Kristelen gurasoak ere etorri ziren –alaba zeinekin zebilen jakin nahiko zuten, nonbait, nolako mutila ote nintzen, bada–, eta karabana hartu eta hara eta hona ibili ginen, Euskal Herria ezagutzen. Orioko kanpinean ere izan ginen, eta gustatu egin zitzaigun; herriko giroa-eta, hondartza-eta. Umeekin egoteko toki espeziala da.

Oiartzunek itsasorik ez.

Baina hasieran Oiartzungo baserrira etortzen hasi ginen. Bertako zelaian uzten genuen karabana. Lau ume izan ditugu, eta batean, bazkaltzera baserrira; bestean, komunera, baserrira. Garmendi handia da, baina, hala ere, umeak entretenitu beharra dago, eta egunero-egunero baserrian, ez zen modua. Halako batean, kanpinera joatea pentsatu genuen. Eta aritu ginen Gipuzkoako kanpin guztiak ikusten, eta Orio aukeratu genuen. Herri euskalduna, Oiartzun bezalaxe. Donostia ez, han ez da euskara aditzen. Pena ematen nau horrek. Esate baterako, Anberesen-eta jendea flandrieraz ari da kalean barrena, irakaskuntza guztia ere flandrieraz da. Dena dute, edo autonomia oso handia, ia independentzia.

Flandriarrak, euskaldunak... waloniarrek ere ez dituzu urruti.

Belgikako nazionalismoa oso diferentia da. Nazionalista flandriar gehienak eskuinak dira. Haien nazionalismoaren aurrean, antinazionalista naiz. Bestela, euskalduna naiz. Ez zait interesatzen paporean zer nazionalitate jartzen duen, ni euskalduna naiz, harro nago, eta euskaraz hitz egiten dut. Hortik aurrera, mundukoa naiz, mundutarra.

Nola datoz zuen oinordeak?

Lau seme izan ditugu, eta poza ematen nau, biak sentitzen direlako, euskaldunak eta flandriarrak. Gustura etortzen dira Euskal Herrira, ez dakite euskaraz ez erdaraz, flandrieraz besterik. Hala ere, bi zaharrena hainbestean moldatzen dira erdaraz eta, bi txikiak, aldiz, ingelesez. Baina ikusi beharko zenuke, etxean ikurrina jarrita daukate. Batek, Simonek –kantari bastante ezaguna han–, Euskal Herriko mapa dauka tatuatuta. Beste batek, lauburua... Sentimendua dute euskaldunak ere badirela. ●




Julen Apella

SAKELAKO BIHOTZAK

Egungo gazteen ibilerak egungo gazte batek idatziak

elkar www.elkarargitaletxea.es

2024
Zubikarai
saria



Iritziak

Basque washing



XIMUN FUCHS
ANTZERKILARIA

Duela guti, arte erakusketa batean egon nintzen. Astinduta atera nintzen handik. "Bihar beranduegi da". Hala zioen izenburuak. Ekoizidioaz mintzo zen, kulturizidioaz, eta oro har gure ingurumen zabalaren suntsitze sistematikoaz (herriak eta kulturak barne).

Gurean, oihartzun berezia du esaldiak. Gure hizkuntza eta gure kultura etorkizuneko zerak direla ematen du. Aurkeztuak zaizkigun egitasmoak heldu diren 25 urteetan garatzekoak dira. Etorkizuna jartzen zaigu jomugan. Alta, sumagarria den bezala, bihar beranduegi da. Urgentziako neurriak ez badira hartzen (arnasguneak hiltzera doazelako, eta hizkuntzaren bizigarritasuna haiekin batera), neurri horiek ez dute ezertarako balio izango. Beranduegi izango da.

"Bai, badakit ez dela aski, baina asko da. Pentsa nondik gatozen! Ez da erraza... Egunero borrokatzen naiz gehiago lortzeko, lortutakoa ere baloratu behar da". Hara berriki hautetsi batek errandakoa. Erantzuna gaiez kanpo dela iduritzen zait. Paso "borroka" terminoaz (borroka eta lana edo betebeharra nahasten direlako, ez gara inongo arrisku errealez ari). "Ez da aski"? Ez, ez: ez da *egokia*.

Ekologian hainbatetan erabili den metafora bat baliatuko dut: buruko mina dut, tripa nahasia eta lo ezegonkorra. Medikuariengana noa eta hark ematen dizkit: infusioak (lo eta estomago arazoak arintzeko), eta paracetamol (buruko mina

Dena da gero:
euskara etorkizuneko
afera da berehalako
interesak babesteko
(izan pertsonalak
edo alderdikoak).
Baina etorkizun baten
menturan ezin gara bizi

lasaitzeko). Milesker. Baina nire arazoa minbizi orokortua da, eta horrek dit loa kentzen, urdaila suntsitzen eta garuna txikitzen. Orduan, arazoa ez da infusioa edo paracetamol ez dela *aski* botika bezala. Arazoa da ez dela *egokia*.

Abenduak 3, Euskararen Eguna, euskararen urtaroa, ahobizi edo belarriprest, eta laster Korrika: *basque washing*-erako aukera paregabeak dira. Besarkada, ttat-tarra, txapa, lekukoa, argazkiak sareetan... eta gero?

Oraina ukatua da instantaneoaren mesedetan. Oraina ukatu eta egiazko politikak geroko. Dena da gero: euskara etorkizuneko afera da berehalako interesak babesteko (izan pertsonalak edo alderdikoak). Baina etorkizun baten menturan ezin gara bizi. Orainean euskaraz

bizitzeko eskubidea, arnasteko posibilitatea, kulturen zabaldua den prekariatetik ateratzeko proposamenak... non daude? Guk ez ditugu gure giza eskubideak 2050ean lortu nahi. 2050erako, hiru gerla, bi pandemia eta hamabost gobernu aldaketa gerta daitezke. Urrats ttikien politika segregazioa eta supremazismoaren onurarako egiten den politika da. *Basque washing* politika da.

"Guretzat, fisikariontzat, iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko bereizketak ilusio temati baten balioa baino ez du gordetzen". Erlatibitatearen teoriarekin, Einsteinek denboraren praktika eta ikuspegia aldatu zituen, zeina ez baita lineala eta absolutua, baizik eta behatzaileari dagokiona. Horrek erran nahi du iragana, oraina eta etorkizuna aldi berean existitu daitezkeela, eta hautematen dugun zatiketa subjektiboa dela. Makinen aroan bizi gara. Ez lehen, ez gero eta ez orain. Instantaneoan. *Post* eta *Reels*. Hiroshimaren denbora. Suntsiketaren aroa. Baina lasai. Beti izango da gutarteko bat aurreko bat euskara eta euskal kultura gutxiesten duen ministro edo lehendakari bati eskaintzeko prest; eta beti egongo da hautetsi edo kultur arduradun bat iradokitzeko, hein batean, gurea dela errua. Ez baikara aski irekiak. Etxepareren liburua edo *Gernika* margolana ez baldin badira gure herrian aterpetuak, zerbaitengatik izango da, ezta? Ez garelako nor. Behintzat hala tratatuak izatea onartzen duguno. ●

Atzar gaiten



KATIXA DOLHARE-
ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

2025. urte honek datozen urteetan kultur alorrean etorriko diren zailtasun handiak iragarri dizkigu. Euskal Kultur Erakundean (EKE) gertatzen ari dena horren adierazlea da. 2025eko biltzar nagusian, apirilean, erakunde publikoek usaian ematen dioten dirulaguntza bozkatua izan zen. Euskal Kultur Erakundea bere partaideekin lanean hasi ahal izan zen, orduan, aitzineko urteetan bezala. Eta hara non, uztailean, estatuak erabaki zuen hitzemandakoa 30.000 euroz apaltzea. Udazkenean antolatutako mobilizazioaren ondotik, estatuko ordezkariak esperantza eman zuten “kreditu buztanak” aurkitu zituztela, baina alferrik. Saiatu omen ziren buztan horiek Rachida Dati Kultur ministroari berari eskatzen, Bonnat-Helleu museoren estreinaldi egunean Baionan zelarik, baina, maleruski, ezin izan da aterabiderik atzeman. Estatuak sei milioi euro ezarri ditu museo garrantzitsu horren arraberritzeko, baina 30.000 euro ezin izan ditu atera Euskal Kultur Erakundearentzat, ez zakutik, ez zorrotik. Hori ofizialki adierazi du DRACeko [Kultur Gaien Eskualde Zuzendaritza] zuzendari nagusiak EKEko azken administrazio kontseiluan, abenduaren 13an, eta erran digu 2026rako apaltze handiagoa ere gerta daitekeela.

Bilkura horretan, Pirinio Atlantikoeetako Departamenduak jakinarazi du 50.000 euro gutiago eskuratuko duela EKEk 2026an. Euskal Hirigune Elkar-

goak erran du iazko dirulaguntza bera emanen ziola, eta Akitania Berriko eskualdeak, ahaleginak egingen zituela bide horretatik ere aritzeko. Azpimarraztekoa da Eusko Jaurlaritzak emendatzea aipatu duela.

Testuinguru horretan, argi da euskal kultur munduak, bizirauteko, indarrak aurkitu beharko dituela bere baitan eta elkartasunez jo beharko dutela eragileek, erakunde publikoen sustengua muga batetara heldua dela baitirudi.

Euskal Kultur Erakundeko administrariak eta langileak lanean ariko dira laguntza instituzionalak bermatzeko eta ahal bezainbat areagotzeko, bata eta bestearen lehien eta interesen gainetik pasatuta.

Baina, anartean, segitu beharko da antolatzen eta zentzuz aritzen, uniformizazio globalak, adimen artifizialak, indibidualismoak eta eskuin muturreko ideologiak urra lezakeen jendartean.

Joan den astean, plazer handiz entzun ahal izan ditugu, Kanbon, Hazparnen eta Baigorriin, Denise Olhagaraik zuzentzen duen Iparralai musika eskolako koralak, Errobi eta Elhuyar kolegioetako koralak eta Ascèse abesbatza profesionala, maila handiko kontzertu batean. Philippe Mendes gidari, Marie-Bernadette Dufourcet Hakim organoan, Intza Daguerre eta



DOM CAMPISTRON

Kattalin Haira txistuan. Besteak beste, *Atzar gaiten*, *atzar lotarik* kantika ezaguna eskaini ziguten, moldaketa zoragarri batean. Kontzertu hori ibilbide pedagogiko oso baten fruitua izan da: ikasleek ikastaldi trinkoak ukan zituzten aitzinetik, ahots teknikak hobetzeko; Oiertzungo Soinuenea museoa bisitatu zuten eta Tolosan ere izan ziren, Hegoaldeko beren adinkideak entzuteko kantuz. Hartuak hartu, gazte horiek kantuz eta musikan aritzeko plazera dastatua izanen dute eta, beharbada, ohartuko ziren kultura herrikoiak kultura jasoak bezainbat baliotu duela, organoa txistuarekin uztarturik entzun baitute.

“Atzar gaiten”. Ez dut uste euskal kultura hain lokartua dagoenik, baina segur da lo guti egingen dugula ondoko hilabete eta urteetan: iratzarririk eta erne egon beharko dugu. Urtarrila amaitu artean, bada, goxa ditzagun “amodioak garaitu” dituen jendarte guneak –oraino gelditzen baitira–, neguko solstizio garaian antolatzen diren horiek, bereziki. Egu-berri on denei, eta 2026. urtean ere, *fleite gaitzean!* ●

Gastatu ala aurreztu egiten duzu?



KARMELE GISASOLA
ZENIKAZELAIA
HERRI KIROLARIA

Erakutsi al dizuete inoiz aurrezten? Bada, gure etxean txikitatik sartu ziguten aurrezteko beharra. Gurasoek baino gehiago, aiton-amonek. Aitak kontatzen zigun aitona, zorrotza izateaz gain, oso aurreztailea zela. Diru pixka bat egindakoan, etxean mejorak egiteko erabiltzen zuela. Horrela, auzoan lehenengoak izan ziren telebista ekartzen. Hori dela eta, auzokoak baserrira etortzen omen ziren igande arratsaldetan telebista ikustera. Bera gertatu zitzaizen kotxearekin. Aitonak eta amonak biek batera atera zuten gidabaimena, eta auzoko lehenengo Land Roverra ekarri zuten. Amonak herrira jaisten omen zituen berarekin batera auzoko gainontzeko emakumeak ere, esne partitzera.

Aiton-amonek, dirua izan arren, behar gehien zutenei ematen zieten sarri, eta beraiek gutxi balute bezala bizi ziren. Ez oporrik, ez luxurik, ez hondartzara irteerarik. Lana eta lana. Baserritik bizi ziren, ez bata eta ez besteak ez zuten etxetik kanpo lanik egin.

20 urte genituela, lehengusuok, ikas-teaz gain, han eta hemen lantxo batzuk egiten genituen sos batzuk irabazteko. Aitonari komentatzen genion zenbat irabazten genuen, pozik geratu zedin. Bazekien garaiak aldatu zirela eta ikas-

ketak izanez gero kondizio hobegotan bizi zitekeela.

Baina aitonari ezin genion esan Bilbora joan ginenik 30 euroko afaria jatera. Berarentzat hori dirua xahutzea zen. Hortaz, herriko tabernan bost eurotan bokatak afaldu genituela esaten genion, lasai gera zedin. Berak ez zuen etxetik kanpora lagunartean eta familian bazkari-afari askorik egin. Zer esanik ez poteoaz. Berak lana besterik ez zuen egin gaur daukaguna izateko. Seguruenik, berari ere hori erakutsi ziotelako.

Gaur egun, ordea, han eta hemen entzuten eta ikusten dut: “Ez daukat dirurik”. Baina asteburua etxetik kanpo pasatzera joaten dira. “Ez daukat dirurik”, baina larunbatean juergan irteteko ez dute aitzakiarik jartzen. “Ez dut dirurik”, baina modako zapatak erosten dituzte. “Ez dut dirurik”, baina udako oporrak antolatzen hasiak dira jada.

Susmoa daukat gure posibilitateen gainetik ez ote garen bizi. Etxea ordaintzeko hipoteka, kotxea ordaintzeko ere bai, baita oporretara joateko ere. Puntu honetara iritsita, garai batean oporretara ez joatea normala izan zitekeen bezala, gaur egun ia derrigorra da gutxienez urtean asteburu bat etxetik kanpo pasatzea. Kasu horretarako, nekez entzun dut “ez daukat dirurik”. ●

Erresistentzia-saioak I: mahatsak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Helburua lortzen ez duen ekintza da *saioa*. Bai, behinik behin, hitz horretarako Euskaltzaindiaren Hiztegiak dakarren bigarren adieraren arabera. Eta, beharbada horregatik, *saio* hitza bereziki egokia da artikuluko sorta hau izendatzeko. Oraindik ezagutzen ez dudana 2026a saldatzeko.

Ate joka dugu urte berria, eta, horrekin batera, ohiko asmo onen zama astuna. Nire erresistentzia-saioak ez dira arrakastaz bete beharreko egitasmoak, ahalik eta duinen irauteko taktika xumeak baizik. Denborak erranen du noraino duen arrazoi hiztegiak.

Hortaz, lehen erresistentzia-saioa aurkeztuko dizuet: urtezahar gaueko

hamabi mahatsak platerean uztea. Deliberatuki. Batetik –atera dezadan bularra euskal komunitate kritikoa–, tradizioaren jatorria espainola delako; bestetik, –pantaila bati begira– hamabi mahats hain agudo jan nahi ez ditudalako. Hilabeterik laburrenak ere lau aste ditu eta. Ez dezagun hori ere konprimitu mahats baten irenstean, faborez.

Segur aski, nire lehenbiziko saioa ez da Lady Godiva bezain ausarta izanen –ez naiz urtezahar gauean zaldi gainean ibiliko, biluzik–, baina (maite ditudanen) presio sozialaren tiraniari buru egingen diot. Zintzurra lasai libratu bidenabar. ●

2026 izango al da burbuila berri baten urtea?



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Urtea amaitzen ari dela-eta, ohikoa den bezala datorren urtean zer etorriko den galdetzen hasi gara. Ekonomisten artean, azken hilabeteetan galdera bat dabil bueltaka: Adimen Artifiziala eta teknologia berrien inguruan sortzen ari den *booma* benetako eraldaketaren seinalea da, ala beste burbuila finantzario baten hasieran gaude? Zoriturrez, ez dugu kristalezko bolarik, baina badaude zenbait zantzu, adi jarraitu beharrekoak.

Burbuila bat gertatzen da aktibo baten prezioa bere balio errealetik nabarmen urruntzen denean, itxaropenetan eta etekin errazaren narrazio optimistetan oinarrituta. Azken urtean horrelako dinamika batzuk ikusi ditugu: AEBetako burtsa balio historikoen gainetik dabil, *startup* batzuk milaka milioitan tasatu dira apenas jarduera eta fakturaziorik izan ez arren, eta OpenAIren mugimendu ikusgarriak –etorkizuneko kalkulu ahalmena ziurtatzeko 1,4 bilioi dolar mobilizatzea– irudikatzen du zenbateraino oinarritzen den merkatua etorkizuneko aurreikuspenetan. Momentuz, produktibitatea edo hazkunde ekonomikoa ez

Kezkagarriena da AAre 'booma' ez dela akzio-merkatuan soilik gertatzen ari: zor pribatu, bonu korporatibo eta finantza-produktuen bidez ari da hazten

dira proportzionalki mugitu, eta AAre adopzioa enpresetan ez da orokortu. Are, azken datuen arabera, murrizten ari da.

Kezkagarriena da oraingo *booma* ez dela akzio-merkatuan soilik gertatzen ari: zor pribatu, bonu korporatibo eta finantza-produktuen bidez ari da hazten. Bankuak eta aseguratzaileak gero eta murgilduago daude jokoan, eta hori arriskutsua da testuingurua kontuan hartuta: zor publikoa eta pribatua mundu mailan BPGaren %235etik gora dago, eta finantzaketa-kostuen igoera, banku-krisiaren ondorioz, katastrofikoa izan liteke.

Hori guztia kontuan hartuta, teknologiari lotuta izan arren, badirudi egoera hurbilago dagoela 2008ko krisitik 2001eko *puntucom*-etik baino. Orduan galerak akziodunen artean geratu ziren; oraingoan, baliteke kolpea kreditu-kateen bidez ekonomia osora zabaltzea.

Eta zer ondorio izango lituzke horrek guretzat? Azken krisi handietan erakutsi zen logika ezaguna da: gobernuek bankuak eta korporazio handiak erreskatatzen dituzte, zor publikoa handitzen da, eta ondoren, guretzat kaleratzeak eta austeritatea. Enpresek arriskutzen dutela diote, baina haien mozkinak benetan arriskuan daudenean, gu gara faktura ordaintzen dugunak. Baina tira, Gabonak dira, pozezko garaia da eta dagoenik eta sistemarik onenean bizi omen gara.

Agian AA iraultza izango da eta bere fruituak helduko dira. Are, agian AAk gure lanaren zati gero eta handiagoak egingo dizkigu eta denbora gehiago izango dugu bizitzeko. Edo agian ez, eta 2026an berriro besteen jaia, gonbidatu ez gaituztenena, garbitu beharko dugu. Lehenengoa ez dago gure esku, bigarrena bai. ●

Igo ekologikora!
NAFARROAKO SALMENTA PUNTUEN
ETA JATETXE IRAUNKORREN SAREA

Kontsultatu hemen
Nafarroako saltokien
zerrenda

CPAEN
NNPEK
eko logikoak

cpaen.org
navarraecologica.org

Bizi Baratzea

Lurrari begiratzen diogunon Orria



**Kalean da 4. zenbakia:
negukoa**




Formatu berezia

Tolesturak zabaldua poster handi batera helduko gara

INTSEKTUEN HIBERNAZIOA posterra

Intsektuek hibernatzeko dituzten modu anitzak azaldu dizkigu Iñaki Mezquita adituak eta ikusi hutsean ulertzeko moduan islatu ditu Ione Larrañaga ilustratzaileak.



HOBEEA

Euskal Herriko
ogi ekologikoa
Miren Osa



**Zer egin
neguan?**



Baratzean / Jakoba Errekondo
Basoan / Markel Arriolabengoa
Haziekin / Kelo Arribas
Sendabelarrekin / Garbiñe Larrea

Txondorra

Altxor beltza
zaintzen duten
langileak

Nola egin?

Ofizio hori ekarri digu
Estitxu Eizagirrek



Saguzarra

Kiropteroen ordena

shhhhh...

Saguzarrak lotan daude.
Haien loa errespetatu.

Estitxu Eizagirre



Batu mundua bizigarri eta eguneroko bizitza
gozagarri egiten dutenen komunitatera:

eginbizibaratzea.eus

Nahi duzuna jaso, nahi duzuna ordaindu

IKERKETA ERREPORTAJEA

CREA eta Ramón Flecha

Euskal Herrian ere abusuak, mehatxuak eta jazarpena

Uztailaz geroztik, CREA ikerketa zentroaren eta bere sortzaileetako bat den Ramón Flecha soziologia katedradunaren aurkako salaketak ugaritu dira. Sexu eta botere abusuak, sekta funtzionamendua izatea edo lan esplotazioa leporatu diete dozenaka emakumek. Salaketek Herrialde Katalanetan dute epizentroa, bertan baitu botere eta azpiegitura gehiena CREAK. Baina Euskal Herrian ere badu talderik eta kiderik, eta Flechak, sortzez bilbotarra, lotura mantentzen du gure herriarekin. Erreportaje honetan ikertu ditugu CREAK Euskal Herrian duen

errotze maila, salaketekiko posizionamenduak eta Herrialde Katalanetan salatu diren portaerak errepikatzen diren edo ez. Besteren artean, zazpi urtez CREAKo kide izan den pertsona batekin mintzatu da ARGIA.

Erreportaje hau inprentan sartu aurreko orduetan bi gertakari oso garrantzitsu kateatu dira: batetik, Bartzelonako Unibertsitateak jakinarazi du fiskaltzan salatuko dituela CREA eta Flecha, delitu larriak egotzita; bestetik, eta albiste horren ondoren, CREAK bere jarduna "berehalakoan" amaitzeko erabakia hartu duela iragarri du.



Ramón Flecha, 2019ko Kataluniako Soziologia saria jaso ondorengo hitzaldia ematen.

Hogei emakume baino gehiagoren lekukotasunak oinarri hartuta, elkarlanean egindako ikerketa baten emaitza argitaratu zuten Espainiako Eldiario, Infolibre, RTVE eta Radio4-RNE hedabideek 2025eko uztailaren 2an. Emakumeek Ramón Flecha Bartzelonako Unibertsitateko soziologiako katedradun emeritua eta CREA (Community of Research on Excellence for All) ikerketa zentroko sortzailea salatu zuten, sexu eta botere abusuak leporatuta. Gehienak Flecharen ikasle izanak dira. Sexu abusuak ez ezik, CREA barnean jazarpen giro orokorra deskribatu zuten, “gutxienez” 2000. urtetik gaur egunera arte.

Flecha erreferentziazko autorea da hezkuntzan eta soziologian, mundu mai-


lan bezala Euskal Herrian ere. ARGIAk, esaterako, 146 Larrun monografikoa eskaini zion 2010ean, *Ramón Flecha: kalitatezko hezkuntza denontzat* izenburuarekin. 1952an jaio zen Bilbon eta 1978tik bizi da Bartzelonan, baina Euskal Herriarekin lotura pertsonalak eta akademikoak ditu. 1991n Bartzelonako Unibertsitatean sortutako CREA ikerketa zentroa ere aski ezaguna da hezkuntzan eta akademian. Botere handia izan du eta oraindik ere badu Herrialde Katalanetan, proiektu, eragile eta argitalpen ugari sustatzen, edo nazioarteko kongresuak antolatzen ditu.

Taldeak ditu Espainiako Estatuko edo Hego Amerikako zenbait lurraldetan ere, *La Vanguardiak* argitaratu zuenez. Ikas komunitateen edo solasaldi dialogikoen

metodologiak bultzatzeagatik dira eza-gunak CREA eta Flecha, eta bazterkeriaren aurkako edo inklusioaren aldeko hizkera komunitarioa erabiltzen dute. Azken urteetan gero eta gehiago landu dituzte biolentzia, indarkeria matxista edo maskulinitatea. Bere burua mundu mailako “genero indarkerian 1. (nazioarteko rankinga)” gisa aurkezten zuen Flechak orain gutxi arte X sare sozialeko bere kontu pertsonalean.

Aurtengoa ez da CREAREN eta Flecharen aurka salaketak izan diren lehen aldia, hedabideek ikerketan nabarmendu zutenez. 2004an, “hainbat kexuren ostean”, Bartzelonako Unibertsitateak barne mailako espedientea ireki zuen, eta instruktoreak ikerketa sakona egitea eta neurri prebentiboak hartzea eskatu

El apoyo a las víctimas: quiénes están atacando a Ramón Flecha y al CREA



CREA eta bere ingurunetik zabaldutako grafikoa, Flecharen aurkako salaketak ustezko abusatzaileei leporatzen diena.

zuen. 2016an unibertsitatea izan zen fiskaltzara hiru salaketa helarazi zituen, CREArri egotziz “sekta” baten funtzionamendua izatea eta “manipulazio psikologikoa” erabiltzea. Fiskaltzak salaketak artxibatu zituen, froga nahikorik ez zegoela iritzita.

Azkenik, 2025eko ekainean CREAk kide izandako hamalau emakumek gutuna bidali zioten Bartzelonako Unibertsitateko errektoreari beren abokatuen bitartez, eta CREA barnean “bizi izandako egoeren larritasuna” salatu zuten. Idatzian jasotzen denez, emakumeetako batzuek “Ramón Flecha jaunarekin sexu-harremanak eduki izana kontatzen dute, hierarkia desberdintasun testuinguru batean argiro –ikasle, bekadun, doktoregai edo mendeko gisa– eta errepikatzen den jokabide baten pean, zeinak bat egiten baitu hertsadura sexualarekin, botere abusuarekin, sexu jazarpenarekin, indarkeria psikologikoarekin eta lan esplotazioarekin”. Uztailaren 11n salaketa

formala aurkeztu zuten emakume horiek Bartzelonako Unibertsitatean, eta 15ean hainbat neurri iragarri zituen hezkuntza erakundeak, horien artean salaketak ikertzeko batzordea osatzea eta Flecha bere zereginetan “kautelaz etetea”.

Sexu abusuez gain, emakumeen lekukotasunetan beste salaketa mota batzuk errepikatzen dira. Batetik, Flecha-rikiko: berarekin izandako harremana sekretuan gordetzeko agintzea, norbere harreman intimo eta sexualen inguruan hitz eginaraztea eta ondoren informazio hori erabiltzea botere logika batean, bere hitzaldietarako aurkezpenak prestatzea, bidaia profesioaletara lagundu beharra eta berari maleta egitea, bere etxean egiten ziren bileretan etxea garbieraztea... Bestetik, CREArekiko oro har, sekta funtzionamendu salakete-kin bat egingo luketenak daude: bizitza profesional zein pertsonal osoa CREAk sarearen barnean egitea sustatzea (etxebizitza partekatuetan elkarrekin

Dozenaka emakumek salatu dituzte Flecharen sexu abusuak eta CREA barneko esplotazioa eta jazarpena

bizita, edo lana, aisialdia, adiskidetasunak zein harreman sexuafektiboak taldeko kideetara mugatuta); saretik kanpoko pertsonekin dituzten harremanen gaineko kontrola eta horiek bazterrean uzteko presioa; taldearekiko edota lidere-rikiko jarrera kritikoa edo zalantzak norbere gabezia eta arazo pertsonalekin lotzea; obediencia eza eta kritikotasuna

“Emakume nagusiago batek lan egin zuen neska gazteak Flecharengandik babesteko”

Oihana 2017an hasi zen CREArekin harremanetan. Master Amaierako Lana (MAL) jardunaldi batzuetan aurkeztu zuen, eta amaitzean, bertan zen CREAko pertsona batek mintegi batera gonbidatu zuen. Ostean, “ibilbide akademikoa hasteko zeuden aukeren inguruan hitz egiteko” hitzordua proposatu zioten, unibertsitatean lan egiten zuen emakume batekin. “Nire sorpresarako, kafe horretara ez zen emakumea agertu, baizik eta Ramón Flecha”. Oihanaren esanetan, Flecha kontu akademikoez galdezka hasi zitzaion, baina “jarraian nire egoera pertsonalaz galdegin zidan: ea mutil lagunik nuen, berarekin pozik nengoen edo ez, ea bakarrik bizi nintzen edo gurasoenean... Gero bera hasi zen gauza pertsonalak kontatzen, bere bikotearen urtebetetzea zela, Gaztelugatxera eraman behar zuela bertan musukatu zirelako lehen aldiz, idatzi zion postala erakutsi zidan... Ezustean harrapatu ninduen, arraroa izan zen, tentsioan jarri nintzen”. Flechak 65 urte zituen orduan, Oihanak 23.

Tarte batera, CREAko beste kide bat batu zen hitzordura –MALaren aurkezpenaren ostean hurbildu zitzaion pertsonaren alaba–, eta Oihana “lasaitu” egin zen, “beste emakume gazte bat zegoelako: pentsatu nuen ‘a, hau normala da’”. Emakume gazteak zineforum batera gonbidatu zuen, bere amaren etxera. Pixkana, CREAn parte hartzen hasi zen. “Hasieran pentsatu nuen Flecha agertu izana gaizki-ulertu baten ondorioa zela, eta ondoren neska gaztea batzea kasualitatea. Baina orain, eta beste lagun batzuekin hitz egin ostean, uste dut ezetz, egiteko modu orokor baten adibidea dela”.

ABUSUAK

“Emakume nagusiago batek amortiguadore lana egin zuen urtetan neska gazteak Ramónengandik babesteko, bere interesa dispertsatuz aldentzen saiatzeko. Sufritu dugu, baina horregatik izan ez balitz askoz okerragoa zatekeen”.

2023ko irailean Bartzelonara bidaiatu zuen Oihanak, unibertsitateko mintegi batera. “Ramónekin afaldu nuen mintegia prestatzeko. Ondoren, pub batean kopa bat hartzea proposatu zidan, mahaiaren aurreko aulkian eseri orde zondoan eseri zitzaidan, sofa txiki batean, toki gutxi zegoen eta gure gorputzak kontak-

tuan zeuden. Deseroso nengoen, ‘nahikoa da’ pentsatzen”.

“Bilbora etorri den bakoitzean sekretismo eta esklusibotasun puntu horrekin ibili da. Afariak antolatu eta neska akademikoko gazteak gonbidatzen zituen. ‘Gonbidatuta bazaude oso berezia zarelako da’, hori zen giroa. Erabateko koertzio giroa zegoen afarietan. Batetik, aprobeztatzen zituen nahi zuen jendea txikitzeko edo barregarri uzteko denen aurrean. Afarietan esan zenezakeen bakarra zen ‘a ze pasada!’. Berak esandako ezer zalantzan jartzen bazenuen, baztertu egiten zintuzten. 2023ko martxoko afari batean, esaterako, hori gertatu zen neska batekin. Bestetik, afariak aitzakia akademikoei antolatzen zituen, baina ia beti bera bakarrik eta gai sexualez hitz egiten amaitzen zuen, oso berandu arte, ‘lo egitea ahulen kontua da’, errepikatzen zuen. Oso momentu desatseginak ziren”.

CREATIK IRTEN

2024an hasi zen Oihana CREATik aldentzen, atzerrian zegoela, pertsonalki eta akademikoki estimuan zituena bi pertsonari egindako “jazarpenak” eragin zion urruntzea. “Ziurrenik kanpoan egoteak lagundu zidan distantzia batekin ikusten gertatzen ari zena. Bestela, ez baduzu distantziarik, edo gauza batzuk normalak ez direla esango dizun lagun edo seniderik, zaila izan daiteke”.

Lehen jazarpen kasua euskal herritar baten aurka izan zen. “Flechak arlo akademikokoan zerbait egiteko eskatu zion, eta ezezkoa eman zion, ez zuela egoki ikusten. Suntsitze pertsonala hasi zen. Egun batetik bestera, emakume horren aurkako mezuak zabaltzen hasi ziren, dena txarto egiten zuela, ustelkeria... Ezin nuen sinetsi”. Pertsona gutxi batzuk emakumea defendatu zutela dio Oihanak, tartean berak, eta orduan mezu erasokor horiek beren aurka ere zuzendu zituztela: “Euskal Herriko hezkuntza zapuztu genuela...”. Garai bertsuan beste horrenbeste gertatu zen UAB Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko beste emakume baten aurka. Hori guztia dela eta, “aldentzen” hasi zen, eta “2024ko abenduan blokeatu egin nituen telefonoan CREAko orbitan jarraitzen zuten pertsona guztiak”.

bazterketa pertsonal edota akademikoarekin zigortzea...

Berriki, 2025eko abenduaren 15ean eta 16an, *La Vanguardia* egunkariak kasuaren inguruko erreportaje zabalak argitaratu ditu, aurreko salaketak berresten dituzten lekukotasun gehiagorekin.

CREAK ETA FLECHAK DENA UKATU DUTE

Flechak eta CREAk ukatu egin zituzten salaketa guztiak, uztailean argitaratutako ikerketa burutu zuten hedabideak haiekin harremanetan jarri zirenean. Flechak adierazi zuen aipatu sexu harreman motak ez dituela "inoiz" izan, azpimarratu zuen "mundu mailako liderra" dela biolentzia matxistaren ikerketan eta aitzindaria unibertsitateetan sexu abusuek salatzen, eta hain zuzen ere horregatik dela orain "genero-indarkeria isolatzailearen biktima" (genero-indarkeriaren biktimak babesten dituzten pertsonen aurka burutzen den indarkeria gisa definitzen da genero-indarkeria isolatzailea).

CREAko egungo zuzendari eta Bartzelonako Unibertsitateko Soziologia Departamentuko zuzendari eta katedradun Marta Soler-ek idatziz erantzun zien ikerketa egin zuten hedabideei. 2004ko, 2016ko zein 2025eko dozenaka emakumeren salaketa "faltsuak" pertsona berberari egotzi zizkion: "adin txikikoen abusatzaile" bat, bere esanetan, "kanpainak diseinatu" dituen "CREAk bere biktimetako bati babesa eman zionetik".

Hurrengo egunetan, ohar bidez, Flecharen aurkako salaketan atzean leudekeen beste bi ustezko zergati eman zituen CREAk: adin txikikoa zelarik sexu abusuek jasan zituen pertsona bati sareak emandako babes publikoa, eta "erlijioso" batek burututako bortxaketa kasu bat azaleratzean izandako inplikazioa. Azken horri dagokionez, eta CREAREN inguruneak zabalduetako grafiko batek ziurtatzen duenez, "apaiz ortodoxo" batek 6-10 urte bitarteko neskatoei "sexu abusuek" egiten ari zenaren "ebidentzia ukaezinak" zituen sareko kide batek, eta Flechak taldeko pertsona horri adierazi zion abusuek salatzen ez bazituen berak egingo zuela, "neskato horiek sufritzen jarrai ez dezaten". Abusuen berri zuen pertsonak, orduan "mehatxu" egin zion Flechari, salaketa aurkeztekotan "bera eta CREA suntsituko zituela" esanez. "Kalumnia larrien kanpaina honekin 10 urtetik beherako neskatoen bortxatzaile baten salaketa eragotziko zutela uste zu-

tenak, oker daude", idatzi zuen Flechak bere sare sozialetan.

CREA sareko hainbat kidek, taldek zein webgunek (eldiariefeminista.info edo periodicoeducacion.info, esaterako) Flecharen alde eta emakume salatzaileen zein informazioak argitaratu dituzten kazetarien aurka egin dute, gogortasun handiz. CREAko zenbait kide ohiren eta komunikabideen aurkako salaketak ere aurkeztu dituzte epaitegietan.

Deustuko Unibertsitatea:
"Jada ez dago CREA
taldeari lotutako inor"
EHU: "EHUk ez du
lotura instituzionalik
CREAekin"

CREAREN "BEREHALAKO" DESEGITEA

Erreportaje hau inprentan sartu aurreko egun eta orduetan bi albiste oso garrantzitsu ezagutu dira. Abenduaren 22an, jakin da Bartzelonako Unibertsitateak Flecha eta CREA salatu dituela Bartzelonako Fiskaltzaren aurrean. Uztailean abiatutako barne ikerketak hainbat delituen zantzuak azaleratu ditu: "Hertsapen sexuala, hertsapen psikologikoa, tratutzarrak, esplotazio pertsonala eta profesionala, baita jokabide iraingarriak eta larderiazkoak ere, kontrol handiko hertsapen-talde baten existentziarekin bat etor daitezkeenak". Horrez gain, CREAko bi irakasleri espedienteak ireki dizkio unibertsitateak.

Hurrengo egunean, abenduaren 23ko gauean, CREAk oharra zabaldu du. Salatu du sareak "jazarpen sistematikoa eta jarraitua" pairatu dituela hamarkadetan "biktimei laguntza emateagatik", eta azken "kanpainak" hori biderkatu duela. Ziurtatu du jazarpenak "ondorio larriak" eragin dizkiela CREAko kideei beren osasun "fisiko eta emozionalean", eta diskriminazioa lan esparruan. Hori guztia ekiditeko helburuarekin, "jarduna

berehalakoan eteteko erabakia" jakinarazi du sareak.

Aurrerago ikusiko da zer ondorio praktiko dituen erabaki horrek, besteak beste CREAk zuzenean bere izenpean aritzen ez diren pertsona, eragile, argitalpen edo proiektu ugari baititu. Edonola dela, orain arte egindakoa hor dago, eta ondorio kolektibo eta pertsonalak ez dira egun batetik bestera desagertuko.

CREA ETA FLECHA EUSKAL HERRIAN

Flecharen aurkako uztaileko salaketek apenas izan zuten oihartzunik Euskal Herriko hedabideetan, ARGIA barne.

Erreportaje honetan ikertu dugu Flechak eta CREA sareak zenbaterainoko presentzia duten Euskal Herriko hezkuntza eremuan. Baina datu hori ez da garrantzizkoa bere horretan: CREARI edo Flechari Herrialde Katalanetan egotzitako abusuek ez dituzte, berez, haiek bultzatzen dituzten ekimenak, metodologiak edo ikuspuntuak baliogabetzen, ezta sarearen Euskal Herriko kideak abusu horien arduradun egiten. Jakin nahi izan duguna zera da: salaketan aurrean zer jarrera adierazi duten CREAREN inguruko Euskal Herriko eragile eta pertsonak; Flechak sexu edota botere abusurik burutu duen euskal lurraldeetan; eta sare horren barnean oro har abusuek eta jazarpena gertatu diren pertsonen aurka.

Ahal dela, hurrengo lerroetan CREARI loturiko pertsona zehatzen izen-abizenak ez ematea erabaki du ARGIAK, ezta publikoki Flecharen alde eta salatzaileen aurka egin duten eta egiten ari direnen pertsonena ere. Batetik, zuhurtziagatik: ARGIAK azken hilabeteotan CREA utzi duten zenbait euskal herritarren berri izan du, baina sarearen inguruko hainbat elkarte edo ikerketa taldeetako kide gisa agertzen dira oraindik; litekeena da ARGIAK ezagutzen ez dituen antzeko kasu gehiago egotea. Bestetik, CREAREN barne funtzionamendu "sektarioaz" salatutakoak egia badin badira, ez da baztertzeak gaur isilik dauden edo, are, salatzaileen aurka publikoki egiten ari diren pertsonak, bihar salatzaile izatea. Min alferrikakoak edo bidegabeak ekidin nahi ditu hedabide honek.

CREA DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN ETA EHU-N

Hezkuntza eta unibertsitate eremuko lau pertsonarekin hitz egin du ARGIAK talde honi buruz, eta beren esanak ikerketa propioaren emaitzekin bat datoz oro

CIMIE kongresua Donostiako fakultatean: Flechari gorazarre zuzena

Uztailaren 2an argitaratu zituzten Flecharen aurkako salaketak Eldiario, Infolibre, RTVE Noticias eta Radio4-RNE hedabideek. Hurrengo egunean, uztailak 3, CIMIE (Hezkuntza Ikerketaren Nazioarteko Diziplinarteko Kongresua) nazioarteko kongresuaren XIII. edizioa hasi zen EHUKo Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatean, eta bertan babes esplizitu eta zuzena eman zitzaion salatuari. Kongresua AMIE (Asociación Multidisciplinar de Investigación Educativa) elkarteak antolatu zuen, eta kongresuaren batzorde antolatzailea CREA sareko kide diren edo izan diren hainbat pertsonak osatu zuten, tartean euskal herritarrak.

Kongresuaren irekiera ekitaldian lau pertsonak hartu zuten parte: Joxerramon Bengoetxea EHUKo errektoreak, Aitor Martxueta EHUKo Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko dekanok, Nekane Arzallus Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengarriko zinegotzi ordezkariak, eta Esther Roca AMIEko presidentek. Haien aurrean eman zuen irekiera konferentzia Garazi López de Aguilera Jaussik, euskal herritarra eta Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea. “Eskerrak” eman zizkion Flechari, “bere” CREA ikerketa taldean “indarkeriarik gabeko” espazioak lortzeko “erakutsitako ausardiagatik eta inplikazioagatik”.

Flechak berak kongresuaren hitzaldietako batean parte hartu zuen, egitarauak aurreikusten zuen moduan. Aurreikusita ez zegoena hitzaldi hartara Esther Roca agertzea zen, kongresua antolatu zuen AMIE elkartearen presidentea. Salatuak katedraduna ondoan zuela, CREAREN aldeko idatzi bat irakurri zuen jendaurrean. Horrez gain, ARGIAk jakin duenez kongresuaren antolatzaileek aurrez programatu gabeko saio bat antolatu zuten CIMIEko partaideek izan zitzaizketen galderak erantzuteko, CREAKo hainbat pertsona “galdera asko” jasotzen ari baitziren “hedabideen difamazio kanpainarekin lotuak”. Saio horretan Flechak parte hartu zuen.

CIMIE kongresuak Flechari emandako babesak ez zuen kritikarik jaso publikoki, baina bai, antza, Hezkuntza fakultatearen barnean. Uztailaren 8an “argibide oharra” bidali

zuen Martxueta dekanok, “[CIMIE] kongresuaren harira jasotako mezuen eta kezken aurrean”. Kongresua egiteko Hezkuntza fakultatea hautatzeagatik antolakuntzari “eskerak” adierazi ostean, programatu gabeko saioari aipamena egin zion dekanok: “Fakultate honek adierazi nahi du ez duela inolako erantzukizunik izan espazio horren antolakuntzan ez eta bertan landutako edukietan ere. Gure fakultateak berretsi egiten du askatasun akademikoarekiko eta ikerketa zorrotzarekiko konpromisoa, baita unibertsitate-ingurune seguru bat bermatzeko konpromisoa ere”.

Saio horrengatik eta Flecharen eta CREAREN aldeko gainontzeko babes adierazpenengatik galdetu dio ARGIAK EHURI. Unibertsitate publikoak adierazi du ez zekiela Flechari eta CREARI babes adieraziko zitzaionik kongresuan, “are gehiago, bezperan egon zen salaketa tarteko, ez zen espero Donostiara agertuko zela”. EHUREN esanetan, dekanok “hainbat aldiz” hitz egin zuen antolakuntzarekin “egoera bideratzeko”, kongresuaren antolakuntzari “kontuak eskatu” zitzaizkion, eta “eskatu genien beren-beregi EHURI egindako aipamena ezaba zezatela irakurri zuten agiritik”. Horren ondorioz kongresuaren antolatzaile AMIE elkartearen presidentek bidali zuen oharra helarazi dio EHUK ARGIAri. Bertan, Roca presidentek “argitzen” du EHUK ez zuela “inongo inplikaziorik” izan aurreikusitako gabeko saioaren antolakuntzan.

CIMIE 2026, BILBON

Donostiako kongresuan bertan, CIMIE 2026 non burutuko den iragarri zuten: berriz ere Euskal Herrian, oraingoan Bilbon. Antolatzaileek hainbat xehetasun eman dituzte beren webgunean, baina ez dute zehaztu Bilboko zein eraikinetan edo erakunderen babespean burutuko den. ARGIAK EHURI eta Deustuko Unibertsitateari galdetu die ea kongresua babesteko eta espazioak erabiltzeko eskaririk jaso duten. EHUK adierazi du ez duela eskaririk jaso, baina kongresuaren webgunean EHUREN logoa agertzen zela ikusi eta kentzeko eskatu zitzaizela, “eta hala egin dute”. Deustuko Unibertsitateak ez du erantzunik eman.



@XAVIER_TORRENS

Flecha CIMIE kongresuko hizlarietako bat izan zen Donostian, eta kongresuko erakunde antolatzailearen zuzendaria bere mintzaldira bertaratu zen babes adieraztera.

har. CREAk ez du presentzia handirik Euskal Herrian, eta antza Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara mugatua dago. Gainera, hainbat pertsonak utzi dute sarea uztailako salaketan ondoren, baita aurretik ere. CREAko kide izan zen Oihanaren esanetan, Flecharen “obsesioa” izan da Euskal Herrian “influentzia” izatea, bereziki Deustuko Unibertsitatean (DU) eta EHUn, “baina ez du lortu” eta CREAK botere eta kide gutxi ditu. Oihana ez da pertsona honen egiazko izena, beste bat erabili dugu berak ala eskatuta: 2017-2024 artean CREAko kide izan zen eta hainbat proiektutan hartu zuen parte. ARGIArekin hitz egin du bere esperientziaz, eta bere lekukotasunak bat egiten du beste emakume batzuek deskribatu dituzten Flecharen zein CREA sarearen jarduteko moduekin. Erreportajearen berak emandako informazioa baliatu dugu, eta horrez gain bere bizipen pertsonala laburtu dugu aparteko koadroan.

EHUrekin eta DUREkin harremanetan jarri da ARGIA, oro har CREArekin eta Ramón Flecharekin loturarik duten edo izan duten galdetzeko, eta zehazkiago erreportaje honetan, jorratzen diren eta haiekin lotura duten gai batzuen inguruan ere.

DUk ez ditu ARGIAk helarazitako galderak erantzun, “aparte” mantentzeko erabakia azaldu du, eta berriki *La Vanguardian* argitaratutako informazioa baieztatzeraz mugatu da. Abenduaren 15ean hedabideak argitaratu zuen CREAK Herrialde Katalanetatik kanpo dituen taldeen artean batzuk Euskal Herrian daudela, DUn eta EHUn. Egunkari horrek berak hurrengo egunean argitaratu zuen DUK emandako argipena, esanez bere irakasle eta ikertzaileen artean “jada” ez dagoela “taldearekin lotuta dagoen inor”. ARGIAk, besteak beste, aurretik ze lotura egon diren galdetu dio unibertsitateari, baina ez du erantzun nahi izan.

EHUK erantzuna eman die ARGIAk helarazitako galderei. Erakundeak CREArekin “harremanik, loturarik edo elkarlanik” duen galdetuta, honakoa izan da erantzuna: “EHUK ez du lotura instituzionalik CREA sarearekin”. Hedabide honek galdetu du ere Joxerramon Bengoetxeak CREArekin edo Flecharekin lotura pertsonalik duen edo ez. Azken urtean CREAri loturiko bi ekimenetan parte hartu izan du, bere karguarekin edo lanbidearekin lotuta. 2024ko abenduan Flechak liburu bat aurkeztu zuen Durangoko Azokan, eta ondoan izan

zuen Bengoetxea, orduko hartan herritar gisa. Harreman pertsonalez erakunde gisa erantzutea ez dagokiola azaldu du EHUK, baina argitu nahi izan du Flecha eta Bengoetxea “hirugarren pertsonen bidez” dutela “elkarren berri”, eta Durangokoaz geroztik ez dutela beste harremanik izan.

CREAko edo ingurune hainbat pertsona eta talde Flecha babesten eta salatzaileen aurka egiten ari dira

Flecha lehenik eta behin DUn saiatu zen CREArentzako eta berarentzako eragin esparruak irabazten, Oihanaren esanetan. ARGIAk jakin duenez, unibertsitate pribatuan CREAko zenbait kide aritu dira lanean, irakasle edo ardura postuetan. Eragin horren adibide izan daiteke 2023ko martxoaren 16an Bilboko campusean burutu zuten *La Sociedad Dialógica* (Gizarte Dialogikoa) liburuaren aurkezpena. Flecharekin mahaian izan ziren, besteak beste: Gema Tomás Deustuko Zuzenbide fakultateko dekanoa; Tontxu Campos, egun Deustuko unibertsitateko irakaslea eta 2005-2009 lege-gintzaldian Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu izana; eta Marta Soler CREAko egungo zuzendaria. Edonola dela, Oihanaren arabera, egun ez dago CREAko kiderik DUn, eta Flechak “jada ez du botererik”.

CREAko EHUn izan duen erreferentzia nagusia Bizi ikerketa taldea da. Oihanaren esanetan, Flechak “agindu” zuen Bizi sortzea, DUn toki bat egiteko “ahaleginek porrot” egin ostean, eta ordutik hori izan da CREAko Euskal Herrian izan duen apustu nagusia. “Afari batekin ospatu genuen sorrera”, dio. Bilerak ostiraleko egiten zituztela azaldu du, bideo-dei bidez, eta CREAko EHUKo kideez gain, sareko kide diren baina Katalunian bizi ziren eta EHUrekin harremanik ez zuten euskal herritarrak ere konektatzen ziren, Flecha tartean. “Guztiak behar zuen Ramónen oniritzia, berak bilerara huts

eginez gero zuzenean esaten zen, ‘gaur ezin dugu erabakirik hartu’”. ARGIAri hainbat iturrik jakinarazi diotenaren arabera, ikerketa taldeko arduradunek CREA utzi dute eta Bizi desegin egin da uztailako salaketan ostean.

ENHANC-ED proiektua “hezkuntza hobe guztientzat, testuinguru pluraletan, soziokulturalki anitzetan eta eleanitzetan, I+G proiektu bat da”, bere blogean irakurri daitekeenez. Besteak beste Europar Batasunak eta Espainiako Gobernuak finantzatzen dute. *Partner* (kide) atalean bost unibertsitate azaltzen dira: Herrialde Katalanetako Unibersitat de Valencia, Unibersitat Jaume I eta Unibersitat de Girona; eta Euskal Herriko EHU eta Deustu Unibertsitatea.

CIMIE nazioarteko kongresuaren batzorde antolatzailean (irakurri koadroa), Bizin edo ENHANC-EDn CREAri loturiko hainbat pertsona errepikatzen dira arduradunen, kideen edo laguntzaileen artean. Horietako batzuk CREA utzi dute uztailako salaketan ondoren, edo lehenago. Beste batzuk CREA jarraitzen dute, eta Flecharen alde eta salatzaileen aurka egin dute sare sozialetan.

Ziurrenik egoera horrek bultzatuta, EHUKo CGT-LKN sindikatuak oharra argitaratu zuen irailaren 25ean. Salatu zuen uztailan ezagututako salaketan aurrean “estatuko hainbat unibertsitateko CREAko kideek, horien artean EHUKo kideak, Flecharen salatzaileak, haien laguntzaileak eta kasu hau publiko egin duten kazetariak difamatu, kalumniantu, iraindu, zalantzan jarri eta jazarri” dituztela. CGT-LKNk “posizionatzeraz” deitu zuen EHU.

SALAKETAK ETA MEHATXUAK

CGT-LKN sindikatuarekin harremanetan jarri da ARGIA. Oharrean salatutakoaz gain, hedabide honi kezka azaldu dio EHUn klaseak ematen ari diren eta CREAko kide diren bi irakasleren jardura dela eta. Bat sare sozialetan Flecharen alde eta salatzaileen aurka egiten ari da, eta bigarrenaren inguruko kexa jaso zuen sindikatuak ikasle baten alde, ikasgaiaren gaitegiak justifikatzen ez badu ere CREAri loturiko edukiak ematen ari zelako. ARGIAri beste iturri batek ziurtatu dio lehen irakasleak ere eman izan duela CREAko edukia, ikasgaien materiak oso bestelakoak izanik ere. CGT-LKNk kezka azaldu dio ARGIAri, CREAko irakasleek beren jarduna baliatu ote duten sarerako ikasle gazteak “erakartze”.

Social Impact enpresa: Flecha, CREAko nagusiak eta elite enpresariala batera

Social Impact SL enpresa 2023ko urtarrilean eratu zen Bartzelonan, ondoko helburuarekin: “Enpresei, erakundeei, erakunde publikoei eta pribatuei laguntzea beren inpaktu sozialaren komunikazioan eta hobekuntzan”.

Enpresaren webgunearen arabera sei pertsonak osatzen dute zuzendaritza taldea, “mundu mailako inpaktu sozialaren sustatzaileak diren eta honen hobekuntza lideratzen ari diren pertsonak”. Oro har enpresa edo hezkuntza munduko pertsonak dira, tartean Marta Soler CREAko presidente eta Bartzelonako Unibertsitateko Soziologia Departamentuko zuzendaria, edo Maria Vieites CREAko kidea eta Social Impacteko zuzendari exekutiboa. Bi euskal herritar ere badira. Enpresaren finantza-zuzendari eta administratzailea Angel Toña da, besteak beste Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu ohia eta Deustuko Unibertsitateko dekanu ohia. Aholku-batzordeko lau kideetako bat Maite Arandia bilbotarra da, BBVA banketxeko zuzendariorde izandakoa eta Deustuko unibertsitateko irakasle ohia. Aholku-batzordeko kide gisa ere agertzen da José María Abril, sortzez Burgoskoa (Espainia), baina DUN ikasi ondoren bertan irakasle aritu zena. Abril Telefonikako lehendakariordea da, BBVAko zuzendari nagusi izan zen, eta Repsol edo Iberia enpresetako kontseilari ohia da. Azken kidea, webgunearen arabera, Elisabeth Torras CREAko kidea da.

Flecha ez da enpresaren webgunean azaltzen gaur egun, baina bai gutxienez iragan uztailera arte. Izan ere, Flecha Social Impacteko lau kontseilarietako bat da

2024ko ekainaz geroztik, Espainiako Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialaren arabera. Are gehiago: data horretan, kontseilari ez ezik enpresako presidente izendatu zuten Flecha. Apenas egin du karguan urte eta erdi. Berriki, 2025eko azaroaren 20an –uztaileko salaketan ondoren–, atzera bota dute Flecharen presidente kargua, baina kontseilari gisa mantentzen dute.

Flecha, Marta Soler CREAko zuzendaria, Jaurlaritzako sailburu ohi bat, BBVAko zuzendariorde ohi bat edo Telefonikako lehendakariordea Social Impact enpresako kideak dira

Abenduaren 20an enpresaren socialimpact.es webgunea martxan zen, eta besteak beste izendatu ditugun pertsonen argazki eta curriculumak zeuden ikusgai. Abenduaren 22an, Bartzelonako Unibertsitateak Flecha Bartzelonako Fiskaltzan salatu duela jakin den egunean, webgunea jada ezin da kontsultatu, “mantenu-moduan” dagoelako.



Enpresaren webgunearen pantaila-argazkia abenduaren 20an, Bartzelonako Unibertsitateak Flecha fiskaltzaren aurrean salatu duela jakin aurretik.

CGT-LKNk aipatutako bigarren irakaslea CREATik irten da azken salaketan ostean, baina sareko kide den eta publikoki Flecha babesten ari den beste berri bat hasi da lanean EHUn irakasle gisa. Gaur egun bi dira, hortaz, EHUn irakasle ari diren CREAko kideak, eta biak ari dira Flecharen alde eta salatzaileen aurka egiten, CREAREN argudioak bere eginez.

ARGIAk EHUri galdetu dio bi irakasle horien jardunaren berri duen, eta izatekotan neurririk hartu duen edo hartzeko asmorik duen. Honakoa azaldu du unibertsitate publikoak: "Inoren kontra neurririk hartzeko salaketa bat egon behar da, ikerketa bat zabaltzeko beharko litzateke eta neurririk hartzea balego dagokion lekuan hartu. Baina ez gaude egoera horretan".

Oharra argitaratu ostean, CREAko bi irakasle horiek sinatutako gutuna jaso zuen posta elektronikoko bidez CGT-LKNk, tonu oso gordinakoa. EHUKo irakasleek CREAREN eta Flecharen aurkako salaketa guztiak ukatu, biktimak haiek direla ziurtatu eta "eraso" egitea leporatu zioten sindikatuari. Oharra ezabatzea exijitu zioten, eta egin ezean "neurri legalak" hartuko zituztela iragarri. Sindikatuak ez zuen erantzun ez oharrik ezabatu, eta horren aurrean bigarren gutun bat bidali zuten sindikatura CREAko kideek, baina orduan EHUKo Berdintasuneko Zuzendaritzaren arduraduna kopian jarrita. Tonu mehatxagarri berdina erabilita, "ustezko" abusatzaileekin "kolaboratzea" leporatu zioten sindikatuari. Esaldi bera errepikatzen da gutunaren hasieran eta amaieran: "Etorkizuneari ezin izango duzue esan ez zeundetenik jakinaren gainean".

CREAREN ALDEKO ERAGILE BATZUK

Badira hezkuntza arloan CREAREN metodologiak bultzatzen dituzten talde eta pertsona gehiago ere.

Uztaileko salaketak publiko egin ostean (Bizi ikerketa taldea desegin den garai berean) Giltzarri sortu zuten sei "ikertzaile gaztek". Beren blogean irakur daitekeenez, "Euskal Herriko lau lurraldetako hezkuntzako ikertzaileen komunitatea" da Giltzarri, eta, besteak beste irakasleentzako "prestakuntza" eskaintzen du. Sei kideetatik hiru CREAko kide gisa aurkezten dira; bik EHUrekin lotura dute, eta lau Kataluniako unibertsitateekin (horietatik hiru salaketan erdigunean dagoen Bartzelonako Unibertsitatearekin). Sei kideek argitaratu dituzte beren sare sozialetan



Flechak berak sinatutako liburu bat aurkeztu zuen Deustuko Unibertsitatean 2023an. Unibertsitateko ordezkariak eta CREAko zuzendari Marta Soler izan zituen ondoan.

Flecharen eta CREAREN aldeko mezuak, eta salatzaileen aurkakoak.

Adarra Pedagogi Erakundea 1978an sortu zen. Bere webgunean irakur daitekeenez elkarlan harremana du hezkuntza arloko zenbait euskal eragileekin, eta CREAREkin. Erakundearen sare sozialetatik, salaketan aurrean Flechak zein CREAk emandako erantzunak zabaltzeko. Berdin egin dute Adarrari loturiko Ikaskom eta Kaiera argitalpenek ere. Euskadiko Ikas Komunitateen sareko koordinatzaileak, azkenik, Flecharen eta CREAREN aldeko idatziak argitaratu ditu CREA sarearen argitalpenetan zein bere sare sozialetan.

FLECHAREN SEXU ABUSUAK BILBON

Uztailean Eldiario, Infolibre, RTVE eta Radio4-RNE hedabideek argitaratu zituzten CREAko emakumeen lekukotasunetan Bilbo bi aldiz aipatzen da, Flecharen usteko sexu abusuekin lotuta. Bietan Euskal Herrikan kanpoko emakumeak dira salatzaileak, eta azaltzen dutenez Bilbora gonbidatu zituen Flechak zeregin akademikoekin lotuta.

Raquel ezizeneko emakumearen kontakizuna 2000ko hamarkada hasieran kokatuta dago: "Beste lankide batekin gaude [Flecha eta biok], lankidea lotara doa eta gu sofari geratzen gara, hurbiltzen hasiten da, laztantzen nau, ni oso deseroso nago eta leihotik begiratzeko esaten dit, ez dakit zer ikusteko. Sofara itzultzen garenean musu bat ematen dit, ez zen besterik gertatu". Bartzelonara bueltatuta, CREAREkin eta Flecharekin harremanetan jarraitu zuen urte luzez Raquelek, eta bere kontakizunak bizipen gogorrak deskribatzen ditu. Sofia ezizeneko emakumeak 2010eko hamarkadaren erdian bidaia zuen Flecharekin Bilbora, lekukotasunaren arabera: "Esplizituki esan zidan inork ezin duela bidaia berri izan, inbidiak sor ditzakeelako. Bidaia garrantzitsua zen berarentzat, eta aste-bete lehenago esan zidan ez nuela ematen behar bezain motibatua. Izututa nengoen, ez nuen berarekin ezer nahi". Sofiaren arabera, Flecha musu ematen saiatu zen bidaia hartan, baina neskak saihestu egin zuen. "Botaka egiteko gogo nuen. Sentitu nuen, nola ihes egiten dut honetatik? Hau segada bat da. Oso zaila zen".

Euskal Herriko CREAko kideei dago-kionez, Oihanak dio egun CREATik kanpo dagoen emakume nagusiago batek neska gazteak Flecharengandik “aldentzeko” ahalegina egin zuela, eta horrek abusuen arriskua gutxitu zuela: “Horregatik ez balitz askoz okerragoa izango zatekeen”.

Bere bizipen pertsonalez galdetuta, zenbait egoera “desatsegin” edo “dese-goki” aipatu ditu Oihanak, besarkada edo kontaktu fisiko “deserosoak” kasu. Batzuk gertatu ziren momentuan bertan egin zitzaizkion desatseginak, beste bizi-pen edo komentario batzuei esanahi sexualizatu berria eman die orain, urtetara, CREA utzi eta salaketen berri izan ostean.

AFARIAK NESKA GAZTEKIN

Oihanaren Esanetan, bera CREAko kide izan zen garaian (2017-2024) Bartzelonan bizi bada ere urtean “lauzpabost” afari antolatzen zituen Bilbon Flechak, bere lagun baten etxean, “neska akademiko gazteak” gonbidatuta “sekretismo handiz”. Afarietatik urte horietan “oso gutxi gorabehera” hogeit hamar pertsona ezberdin inguru pasa zirela dio, afari bakoitzean 5-12 pertsona artean, “Ramónek eman nahi zion eksklusibitatea-

ren arabera”. Azken urteetan eta “oso gutxitan” bi gizonak ere parte hartu zuten.

Flechak afariak “aitzakia” akademikoe-kin deitzen zituela dio Oihanak, baina ia beti sexualitatearen inguruan hitz egiten amaitzen zuela, bera bakarrik eta luzaroan. “Oso momentu desatseginak ziren”. Bilbotik kanpoko pertsonak ere egoten ziren, amaitzean Flechak lo egiteko tokia eskaintzen zien, eta batzuek eskaintza onartzen zuten. Publiko egin diren Flecharen aurkako sexu abusu salaketa gehienak etxeetan eta bilkuren testuinguruan gertatu direla azaldu dute emakume salatzaileek. Berak parte hartu zuen afari horien testuinguruan gertatutako abusuren berri-rik izan duen galdetuta, ezetz dio Oihanak, baina ez duela inondik ere bazterten gertatu izana.

Sexu arloaz harago, afarietan oro har “erabateko koertzio giroa” nagusitzen zela dio Oihanak. Bere esanetan, Flechak bilkurak baliatzen zituen bere aginduak erabat betetzen ez zituzten pertsonak besteen aurrean “txikitze” edo umiliatzeko. “Ez zuzenean eta gordin aurka eginez”, zehaztu du, baizik eta adiskidetasunaren eta zaintzaren izenean: “Zure laguna naizenez eta salbatu nahi zaitu-

danez, eta egia esaten dizudan bakarra naizenez, esan egiten dizut”.

CREAREN KONTROLA ETA FLECHAREN AGINTEA

“Flechak beti esaten du bere proposamenak lasaitasun osoz hartu edo baztertu daitezkeela, baina praktikan ez da egia, ez baduzu berak esandakoa egiten testuinguru bat sortzen du zeinean ezin duzun ezetz esan, eta esaten baduzu, orduan larrutu egiten zaituzte”, dio Oihanak CREAko barne giroaz. Kontrara, “bere afarietan azkenera arte geratzen bazinen, bilera guztietara konektatzen bazinen... orduan *erakargarri* zeunden, hori zen bere hitza, *erakargarri*”.

Bereziki Herrialde Katalanetan Flechari eta CREARI leporatu zaizkion hainbat “sekta” portaera Euskal Herrian ere ikusi dituela dio Oihanak, “erabat”. Esaterako, bizitza osoa CREAko pertsona eta egituren barnean egin eta hortik kanpoko harreman pertsonalak moztea bultzatzea, kritikak arazo eta gabezia pertsonalekin lotzea, edo zigortu-saritu dinamikak Flecharekiko portaeraren arabera. “Ramónek erabakitzen zuen proiektuak nori eman, artikulua nork sinatuko zituen eta nork ez”. ●

Urtarrilekoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.

AITOR TENA EIZAGIRRE

“Herri Gazteditik militante mordo bat irten zen mugimendu askotara”



MIKEL EIZAGIRRE EGIGUREN



DANI BLANCO CC BY-SA

Hari gorritik tiraka liburuxka argitaratu du Aitor Tena Eizagirrek (Zumaia, 1999), Gipuzkoan 2.000 militante inguru izatera heldu zen Herri Gaztedi mugimendu kristauak Zumaian izandako bilakaeraren ikerketa etnografikoa. Bere herrian eta Iruñeko Katakraken aurkeztu du idazlana berriki.

Zein testuinguru historiko eta sozialetan kokatzen da Herri Gaztediren sorrera? Zer nolako berrikuntzak ekarri zituen Zumaiaiko gazteen aurreko elkarte-formekin alderatuta?

Herri Gaztedi 1960ko hamarkada erdialdean sortu zen, Euskal Herrian errealtate sozial eta politiko berri bat eratzen ari zen testuinguruan. Industria-garapenak langileria berri bat sortu zuen –bertako eta kanpotik etorritako langileez osatua–, eta grebak eta borrokak ugaritu ziren. Belaunaldi berriak, Gerra Zibila ezagutu gabeak, aurreko belaunaldiaren immobilismoa hautsi eta subjektu politiko berri baten

sorrera bultzatu zuen, ETaren agerpenak ere adierazten zuen moduan.

Elizaren barruan ere aldaketa sakonak gertatu ziren. Vatikanoko II. Kontzilioak Elizaren eguneratzea planteatu zuen, pobreen aldeko diskurtsoa eta egitura kapitalisten kritika mahai gainean jarritz. Testuinguru horretan, apaizen belaunaldi berri batek zapalkuntza nazional eta sozialaren aurkako konpromisoa hartu zuen. Herri Gaztedik berrikuntza nabarmenak ekarri zituen, bai Zumaian bai eskala nazionalean. Zumaian baziren hainbat aurrekari elizkoi: Luistarrak, Mariaren Alabak eta Oargui. Bestalde, bazen Baserrri Gaztedi mugimendua ere, gero Herri Gaztedi bihurtuko zena.

Aldaketa nagusietako bat izan zen nori zuzentzen zitzaion: nekazariei egindako erreferentziak gutxitu zituzten, gero eta gehiago zuzentzen zitzairen langile klaseari eta Euskal Herri langileari. Herri Gaztedik Baserrri Gaztediren ikuspegi indibidual eta determinista hautsi zuen –gazte bakoitza bere “tokirako” heztearen ideiarekin–, eta heziketa eta ekintza ardatz hartuta, gazteen formakuntza gizarte hobe baten aldeko konpromisoarekin lotu zuen.

Nondik zetozen Herri Gaztediko militanteak sozialki?

Baserrri Gaztedi Herri Gaztedi bilakatzeko mugimenduaren izaera bera aldatu zuen: landa eremura mugatutako ikuspegitik harago, gizarteko bilakaera produktibo eta sozialak jaso eta herri-geruza zabalagoak antolatzea izan zuen helburu. Batez ere langile klaseko gazteak antolatu zituen, kaletarrak nagusiki.

Militante gehienak jatorri euskalduneko gazteak izan ziren, bereziki lehen



urteetan, eta hasieran lotura sendoa izan zuten baserriari eta nekazal imajinarioari lotutako munduarekin, lotura hori urteen poderioz ahultzen joan bazen ere. Elizgizonak ere parte hartu zuten mugimenduan, apaiz batzuk fabriketako lan-prozesuetan eta borroketan integratzearen garrantziaz jabetu zirenean.

Aldi berean, Herri Gaztedik aktiboki bilatu zuen kanpotik etorritako langile etorkinekin alfabetatze-lanak egitea, eta haietako batzuek ere mugimenduan parte hartu zuten, batez ere herriko industria-guneetan lanean zebiltzanek.

Nola sartu zen marxismoa Herri Gaztedin, eta nola ulertu zuten teoriaren funtzioa?

Aipatutako testuinguru sozialaren ondorio izan zen, eta hasieran sozialismoarekiko hurbilketa zeharkakoa eta zehaztugabea izan bazen ere, pixkanaka teoria marxistak presentzia handiagoa hartu zuen. Heziketak garrantzi handia izan zuen, baina ez indibidualki formatzeko edo intelektualak sortzeko tresna gisa, baizik eta praktika politikoari zuzenean lotuta, *ekintza* gisa ulertzen zutena.

Bilakaera teoriko hori Herri Gaztediren aldizkarietan islatu zen: sozialismoa, marxismoa eta autore marxistak gero eta gehiago landu zituzten, garaiazen arabera hainbat erreferenterekin. Formakuntzarako tresna nagusia *Gazte* aldizkaria izan zen, Baserri Gaztedin zein Herri Gaztedin hainbat etapatan mantendu zena.

Teoria eta praktika ezinbestean elkarri lotuta ulertzen zituzten: heziketa eta ekintza ezin ziren bata bestea gabe ulertu. Horregatik, garaiko ezkerreko beste talde batzuen joera teorizista hutsetatik aldentu ziren, eta heziketaren bidez gazteak konpromiso politikora eta ekintza praktikora eramatea bilatu zuten. Ekintza ez zuten egiteko hutsagatik egiten, baizik eta aurretik hausnartuta eta metodologiari garrantzia emanda: ekintzak planifikatu, helburuak zehaztu eta ondoren berrikusketa kritikoak eginez, *Ikusi*, *Epaitu*, *Ekin* metodologiaren bidez.

“Herri Gaztedik aktiboki bilatu zuen langile etorkinekin alfabetatze-lanak egitea, eta haietako batzuek ere mugimenduan parte hartu zuten”



Nolakoa zen Herri Gaztediren barne-antolaketa?

Herri Gaztedi dimentsio handiko mugimendua izan zen –Gipuzkoan 2.000 militante inguru–, antolakuntza aldetik nahiko sofistikaturia. Maiztasunez elkartzen ziren herri eta auzoetako taldetxoak zeuden, bakoitza bere markoarekin. Ekintzak, aisialdi-irteerak eta bestelako jarduerak prestatzen zituzten, eta tokiko borroketan, mobilizazioetan, alfabetizazioan eta lkastolen inguruko eztabaidetan parte hartzen zuten.

Herrialde eta nazio mailako antolakuntza-markoak ere bazeuden. Bertan batzen ziren taldeetako arduradunak, gaztetxoentzako taldeetako arduradunak, apaiz kontziliarioak eta elizbarrutiko ordezkariak.

Nazioarteko harremanetan, hasieran Juventud Agraria y Rural Católica (JARC) mugimenduarekin lotuta egon ziren, baina 1966–1967an haiekin hautsi zuten eta Euskal Herriko mugimendu propioa alda-



rrikatu. Ondoren, harremanak izan zituzten Juventud Obrera Cristiana (JOC) eta Vanguardia Obrera Juvenil (VOJ) bezalako erakundeekin ere.

Bazen barne-korronterik edo eztabaida-ildo nagusirik?

Mugimendu dinamiko eta heterogeneoa izan zen, hasieratik amaierara aldaketa ideologiko, politiko eta metodologikoak izan zituen. Herriz herri oso desberdina izan zen: zenbait tokitan trantsizio naturala ETArA egitea izan zen, beste batzuetan, berriz, bidea dispartsoagoa izan zen edo bestelako mugimenduetarantz jo zuen.

Momentu jakin batzuetan, barne-tentsioak eta korronteak agertu ziren, batez ere 60ko hamarkada amaieran. Errepresioa gogortu zenean, hautu politiko argia egin zuten zenbait kidek proselitismoa egin zuten mugimenduaren barruan, ideiak txertatu eta militantzia-bideak baldintzatzeko. Azken urteetan OICrekin (Organización de Izquierda Comunista) lotura zuten kontziliarioek pisu handia hartu zuten. Zumaiaiko lehen urteetako kideek gehiago jo zuten ildo abertzaleetara (ETArAko fronte kulturala, LAIA, Komando Autonomoak), eta amaiera aldekoek, berriz, ezker iraultzaileko mugimenduetara (OIC, Langile Komiteak, CCOO, ORT, EMK).

Eztabaida nagusietako bat nazio auziaren ingurukoa izan zen: nazio askapena

“Mugimenduaren printzipio nagusien artean kristautasuna, marxismoa, klase-borroka, euskara eta abertzaletasuna zeuden”



ala askapen soziala lehenetsi behar zen. Burgosko Prozesuaren ondoren, mugimenduaren norabideari buruzko eztabaida sakona ireki zen. Aukera nagusiak izan ziren klandestinitatera jauzi egitea edo masa mugimendu antolatu gisa jarraitzea, eta azkenean hirugarren bide bat lehenetsi zuten: Herri Gaztedi heziketa-mugimendua izatea, beste mugimenduak militantz elikatuko zituen, mugimendu bakar batera lotu gabe.

Nola uztartu zituzten kristautasuna eta klase borroka, eta zer ondorio izan zuen Elizak marxismoa debekatzeak?

Vatikanoko II. Kontzilioak ate bat ireki zuen, eta Herri Gaztedin hasieratik izan zuten borondatea aukera hori baliatu

eta kristautasuna sozialismoarekin uztartzeko. Mugimenduaren printzipio nagusien artean kristautasuna, marxismoa, klase-borroka, euskara eta abertzaletasuna zeuden, eta hainbat kidek gogortzen dute Elizaren barruko mugimendu batean egin zirela marxistak, heziketa politikoaren bidez.

Hala ere, prozesu horrek muga argiak izan zituen. Elizako sektore kontserbadoreenak erreakzio gogorra izan zuten, marxismoa debekatu zieten eta Herri Gaztediri azpiegiturak eta baliabideak moztu zituzten. Aldi berean, oposizioko mugimenduak, sindikatuak eta alderdiak indartzen ari ziren, eta Elizaren babesa jada ez zen ezinbestekoa.

Testuinguru horretan, Herri Gaztedin edo bestelako mugimendu kristauetan aritutako kide askok salto egin zuten mugimendu laiko eta sekularizatuetera, eta apaiz askok ere abitua utzi eta mugimendu politiko eta sindikaletan hartu zuten parte. Ondorioz, Herri Gaztedik gizartearen sekularizazio-prozesuan ekarpen garrantzitsua egin zuela esan ohi da.

Nola ulertu zuten nazio-askapenaren eta borroka sozialaren arteko lotura?

Euskal Herrian “klase borrokaren marko autonomo” hura sortzearen garrantzia azpimarratzen zuten, baita eliz-mugimenduaren egitura estataletatik askatzearena ere. Abertzaletasun hutsetik askapen nazionala eta soziala uztartzera pasa ziren, ikuspegi internazionalistatik, baina betiere zapalkuntza nazionalaren arazo espezifikoak eta hura gainditzeko beharra nabarmenduz.

Euskarari garrantzi handia ematen zioten, eta horregatik etorkinekin alfabetatze-lanak egin zituzten, hizkuntzaren arloan ez ezik, baita alfabetatze politikoan ere: euskara lantzea, baina aldi berean langile gisa jasaten zuten zapalkuntza ulertzea, Euskal Herriko zapalkuntza nazional eta sozialari lotuta. Horretarako, soziologiako hastapen-liburuak baliatu zituzten.

Bertako eta kanpoko langileen arteko zatiketa kritikatu zuten, burgesiak sustatutako estrategia gisa ulertuta, langileen kontzientziazioa oztotatzeko. Autokritika ere egin zuten, aitortuz zenbait tokitan erabilitako metodoek eta lan-dinamikek ez zutela beti batasuna errazten.

Hasierako izaera interklasistagotik, mugimendua bere burua *klasista* gisa definitzera igaro zen, langile klasearen antolakunde gisa. Zehaztu zuten langile klasea zela zapalkuntza nazional eta sozialari

amaiera emateko interesa zuen klase bakarra, eta horren ondorioz distantzia hartu zuten euskal burgesiarekiko.

Zein izan zen emakumeen parte-hartzea eta nola landu zuten emakume-auzia?

Baserri Gaztedik ez zuen emakumea subjektu politiko aktibo gisa ikusten orohar, eta bere parte-hartzea baserriko eta etxeko lanetara mugatzen zuen; gehienez ere kultura tradizionalaren eta hizkuntzaren transmisioan (andereñoaren figura) aitortzen zion funtzioa, ikuspegi determinista baten barruan.

Herri Gaztedik, ordea, hasiera-hasieratik haustura ekarri zuen ikuspegi horrekin: ekintzaileez hitz egitean neskei eta mutilei egiten zien erreferentzia, eta emakumeek presentzia handia izan zuten bai arduradunen artean bai *Gazte* aldizkariako erredakzioan. Genero-auzia eta afektibitatea ere landu zituzten, eta emakume askok bertan jasotako heziketari eta lan-munduko esperientziari esker ulertu zuten klase-banaketa eta emakume langileek pairatzen zuten zapalkuntzaren izaera zehatza, eta horrek eraman zituen sozialismoaren aldeko konpromisora.

Zein harreman izan zuten langile-mugimenduekin, ETArekin eta ezker iraultzailearekin?

Harremana izan zuten eta mugimendu horiek eragin zuzena izan zuten Herri Gaztediren barruan. Herrietan kontaktu zuzena zuten, neurri handiagoan ala txikiagoan, eta aldizkarietan harreman hura esplizituki aipatzen ez bazuten ere, elkartasuna adierazten zuten errepresio kasuetan. Guardia Zibilak Txabi Etxebarrieta edo *Xenki* zarautzarra hil zituztenean eskuorriak banatu eta agitazio-ekintzak egin zituzten, adibidez.

Zenbait kidek militantzia bikoitzak zituzten. Kasu batzuetan Herri Gaztedin eragiteko helburuarekin, eta besteetan, berriz, Herri Gaztediko esperientzia oinarri hartuta beste erakundetara egin zuten salto. Orokorrean, Herri Gazteditik militante mordo bat irten zen mugimendu askotara eta antolakunde pila batek jaso zuten bertan egindako lanaren oinordekotza.

Errepresiorik jasan al zuten?

Elizaren “babespean” egonik, ez zuten klandestinitatera jo behar izan, nahiz eta klandestinitatean jarduten zutene-kiko elkartasuna bultzatzen zuten. Hala

ere, ez zeuden errepresiotik salbuetsita: Oarguiko garaitik bertatik ekintza aldarrikatzaileengatik jasan zuten, eta Herri Gaztedin ere Guardia Zibilaren jarraipenak, atxiloketak eta tortura kasuren bat gogoratzen dituzte. Garai berekoa da Zamorako apaiz kartzela, non Herri Gaztediren bueltako apaiz ugari espetxeratu zituzten.

“Elizaren ‘babespean’ egonik, ez zuten klandestinitatera jo behar izan”



Ekintza aldarrikatzaileak eta propaganda egiteko jakintza teknikoak eskuratu zuten. Sabotaje ekintzak ere egin zituzten, eta multikopistaren erabileran trebatu ziren: Luistarretan bazuten bat, Herri Gaztedi sortu aurretik, eta 1972 arte erabili zuten, *Xenki* zarautzarraren omenezko mobilizazioetarako. Orduan, Poliziaren jarraipena sumatuta, multikopista harraldetik behera bota zuten.

Nola iritsi zen Herri Gaztedi 70eko hamarkadara?

Legeztatzeak baino apur bat lehenago desegin zen. Burgosko prozesuaren ondoren hartu zuten erabakiaren arabera, Herri Gaztedi heziketa-mugimendu bilakatu eta beste taldeentzat militanteak sortzera mugatuko zela erabaki zuten. Bestelako mugimenduak indartzen eta izaera publikoagoa hartzen hasi ziren, militanteak erakartzeko gaitasuna irabazi zuten eta legeztatze-prozesurako pausoak eman zituzten. Ondorioz, Herri Gaztedi garrantzia, indarra eta zentzua galtzen hasi zen; militante gutxiago zeuden eta zeudenak beste antolakundetara pasatzen ziren. Zumaiaiko kasuan, azken zelula osatu zuten ekintzaileek diote 1975 eta 1976 artean amaitu zela, Trantsizio aurretik.

Zein da Herri Gaztedik utzi duen ondarea?

Ekintzaile ohiek –zeinak askotariko ibilbide politikoak izan dituzten–, konpromisoa azpimarratzen dute, politikoki eta teorikoki formakuntza jaso izanaz gain. Bakoitza bere arloan dabil: euskara, kultura, pentsiodunen mugimendua... Baina denak bat datoz zerbaiten alde eta zerbaiten kontra borrokan aritu direla beti. Bestetik, “uto-piaren” ideia nabarmentzen dute: bidea egitea, ortzimuga bat izatearen garrantzia eta ezinezkoa dirudienaren alde borrokatzeko grina. ●



MIKEL EIZAGIRRE

“ ”

Kolektiboa den oro okerra da Mileiren gobernuarentzat

ANDRÉS RUGGERI

Gizarte antropologoa da Andrés Ruggeri (Buenos Aires, Argentina, 1967), eta 2002tik Facultad Abierta programa zuzentzen du, langileek berreskuratutako enpresak laguntzen, aholkatzen eta ikertzen dituen UBAko Filosofiako eta Letren Fakultateko talde bat. Gaian espezializatutako hainbat libururen egilea izateaz gain, hitzaldiak eta ikastaroak ematen ditu Hego Amerikako, Europako eta Asiako hainbat herrialdeetan. 2007tik La Economía de los Trabajadores nazioarteko erakundea koordinatzen du. Berriki Euskal Herrian izan dugu EHUgunek ekarrita, *Autogestioa eta birjabetze publikoa* jardunaldien eskutik.

 EKAIN CARRASCO TELLAETXE  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Argentinan langileek berreskuratutako enpresekin lan egiten duzu. Nola definituko zenituzke?

Enpresa berreskuratu bat kapitalismo tradizionaleko enpresa bat da, arazo ekonomikoengatik edo dena delakoa-gatik itxi zutena, eta berriro martxan

jarridena modu autogestionatuan langileen eskutik, normalean kooperatiba formarekin. Halako kasuak Argentinan gehien bat 2001eko krisiaren garaian gertatu ziren. Aurretik ere baziren, eta ondoren ere egon dira. Funtsean, langileek beren lana mantentzeko modu bat da, baina nagusirik gabe.

Zer berezitasun historiko izan zituen 2001eko krisiak Argentinan? Latinoamerikako herrialdeetan, bereziki 1990eko hamarkadan, politika neoliberalak ezarri ziren oso modu gordinean. Politika horren helburua Argentinaren egitura ekonomikoa eta matrize produktiboa eraldatzea izan zen, eta neurri handi batean lortu zuen. Latinoamerikako testuinguruan industrializazio maila nahiko handia zuen herrialdea zen Argentina, eta lehen-gaien esportatzaile bilakatu zen. Enplegua zuen langile klasearen zati handi bat enplegu formaletik kanpo geratzera ekarri zuen krisiak, eta langile informaleen klase erraldoi bat sortu zen.

Langileek nola erantzun zuten?

Enpresa berreskuratuak prozesu horren aurkako erresistentziaren adierazpena dira. Herrialdean milaka enpresa itxi ziren, eta batzuk berreskuratu dira. Guztiak ez, noski. Askok ez dute inoiz berreskuratzeko saiakerarik egin. Enpresa berreskuratu dutenek lan formalaren barruan jarraitu nahi dute, nahiz eta ez den lehengo forma berean, alegia, jada ez dute nagusirik.



Beraz, helburua biziraupena da.

Bai, helburu nagusia biziraupena bermatzea da. Eta horrek lan kolektibo horren barruan zenbait eraldaketa sortzen ditu, ez baita gauza bera kaleko saltzaile batek bizirauteko borrokatzea edo lehen patronalarena zen fabrika bat berreskuratu eta enpresa autogestionatu bihurtzea. Enpresa berreskuratuetan prozesu sozial berriak sortzen dira: lanaren demokratizazioak langileen kontzientzia eta subjektibitatea eraldatzen ditu. Beraz, hasieran sarritan biziraupena zenak, lan egiteko modu kapitalista arruntetik oso desberdina den lan-forma sor dezake.

Biziraupena bermatzeaz harago, autogobernantza ere badago, ezta? Espazio eta subjektu berriak ekoizten dira...

Nik uste dut bi dimentsio horiek bereizi behar direla. Enpresa berreskuratuek ez badu biziraupena bermatzen, porrota da. Eta hori gertatu izan da. Kooperatibak balio

du langileei jaten ematen badie eta diru-sarrera duinak sortzen baditu, familiei eusteko modukoak. Hori da oinarria. Ez dago subjektu berri, subjektibitate berri edo lan forma berrien bilaketarik gutxieneko hori bermatzen ez bada. Eta hori konplexua da, enpresak makroekonomikoki hondatuta zeudelako, baina askotan enpresarien maniobren ondorioz ere bai: batzuetan ez dago makinariarik, edo egoera tamalgarrian dago eraikina, hondatuta; bezeroak galduta; hornitzaileek ez dute konfiantzarik, nagusiak engainatu zituelako, eta orain langileei krediturik ez dietelako eman nahi, baina bai nagusien zorra kobratu. Beraz, berreskuratze prozesuak oso konplexuak dira. Ezin da alderatu sektore bereko kapitalismo arrunteko enpresa arrakastatsu batekin, kooperatiba direnak aurretik hondatu egin zituztelako. Abiapuntua ez da maila berekoa, askoz beheragotik hasten dira, hondamendira gidatu zituztelako.

Lehen porrot egin zuen enpresa batek langileen eskuetan funtzionatu dezake beraz...

Hori da, bai. 2002an Roberto Alemann, diktadurako Ekonomia ministro ohia eta neoliberalismoaren ideologoa zenak, Buenos Aireseko egunkari batean enpresa berreskuratuei buruzko artikulua idatzi zuen. Honela zioen: "Nola izango dira arrakastatsuak langileak, negozioetarako formatuak diren enpresariak porrot egin duten lekuan? Langileak lanerako baino ez daude prestatuta, ez negozioetarako. Enpresa berreskuratuek ez dute funtzionatuko, alferren paradisua besterik ez dira". Hitz horien aurrean, nik esaten diot "alferrak" nahiko ondo moldatu zirela, nahiko ondo.

Zer dakar kooperatiba forma hautatzeak enpresa berreskuratuek kudeatzeko?

Kooperatiba enpresa berreskuratuetan tresna juridiko gisa ulertzen da: legalitatea ematen du, eta aldi berean en-

presa berreskuratu batek bere burua antolatzeke duen moduari egokitzen zaio. Orokorrean, asanblada da organo gorena, eta langileen arteko berdintasuna dago. Laneko kooperatiba ereduak antzekotasun handiak ditu horrekin. Beraz, forma juridiko hori hartzen da, borroka legalizatzen duelako, eta aldi berean, autogestio prozesuaren adierazpen juridiko eta legala ahalbidetzen duelako.

Zer harreman dute enpresa berreskuratuek estatuarekin?

Oso harreman konplexua da, eta egonkortasun politikoak baldintzatzen du, estatuarekin harremana gobernu zehatz batekin egiten delako beti. Estatua, lehenik eta behin, botere judizialaren bidez harremantzen da enpresa berreskuratuekin. Fabrikak porrot egin ostean langileek okupatzen dutenean, eta enpresari ohiak salaketak jartzen hasten direnean, lehenak baitira azaltzen. Baina gobernuaren arabera, botere legegilea eta exekutiboa ere agertzen dira, politika jakin batzuekin. Langileek, orokorrean, estatuari eskaerak egiten dizkiote, izan ere, fabrikak okupatzen dituztenean beren arazoa konponduko duen norbaiten arreta deitu nahi dute. Inork ez duela ezer konpontzen ikusten dutenean, esaten dute: "Bueno, kooperatiba sortu beharko dugu". Hori da prozesua. Eta hor sartzen dira desjabetzeak, lortutako edo lortu gabeko legeak, eta laguntza programak. Argentinan Cristina Kirchnerren eta Alberto Fernándezen gobernuak laguntza programak ezarri zituzten, baina gaur egungo gobernu liberalek dena ezabatu dute. Beraz, enpresa berreskuratuek estatuari aurre egin behar diote lehenik. Batzuetan badago lankidetzat pixka bat, baina askotan estatua lagun izan gabe biziraun behar dute, behintzat ekonomikoki.

Nola bizirauten dute enpresa hauek Mileiren gobernupean?

Gaia korapilatuta dago. Mileiren gobernuak oraindik ez du eraso zuzenik egin enpresa berreskuratuen aurka. Beste sektore askori eraso egin die, etsaitzat hartu dituelako: sindikatuak, irakasleak, etabar. Enpresa berreskuratuek oraindik ez ditu etsai gisa hartu, seguruenik gutxi direlako eta ez direlako hain eragin handikoak. Baina funtsean badira etsai ideologikoa, kolektiboa den oro okerra delako Milei eta bere taldearentzat. Diskurtso indibidualista eta as-



Pigüé-ko oihal-fabrian 70 lanpostu berreskuratu zituzten langileek.

AGENCIA DE NOTICIAS RED ACCION

katasun ekonomikoari gorazarre egin dute. Beraz, funtsean etsai dira, enpresa berreskuratuek kolektiboa mekanismo ekonomiko gisa aldarrikatzen dutelako.

“ ”

**Unibertsitateko
irakaslea izanik,
soldataren
erosahaltenaren %40
galdu dut presidente
hori dagoenetik**

Testuinguru zaila dute.

Testuinguru ekonomikoa guztiz kontrakoa da edozein industria produkzioerentzat: inportazioak ireki eta prezio guztiak liberalizatu dituzte, industriarentzat berebizikoak diren energia zerbitzuak barne. Ekoizpenaren barne kostu guztiak igo dira, eta inportazioak industria suntsitzen ari dira. Gainera, soldaten erosahalmena asko jaitsi da. Ondorioz, enpresa berreskuratuetako langile as-

kok kanpoko lanak bilatu behar dituzte, lan informaletan. Ordu kopuru izugarria egiten dute lan, eta goera oso konplexua da: presioa dago enpresen gain eta langileen gain. Nik adibidez, unibertsitateko irakaslea izanik, nire soldataren erosahaltenaren %40 galdu dut presidente hori dagoenetik. Are, gaur greban gaude. Ni Euskal Herrian nago baina unibertsitatea greban dago [azaroak 12,13 eta 14].

Lanaren etika eskuin neoliberaleretik aldarrikatzen da?

Mileiren gobernuak ez du lanaren etika bultzatzen, mugarik gabeko merkatuaren etika bultzatzen du. Bere ustez, garrantzitsuena dirua irabaztea da, eta horretarako lan egitea ez da beharrezkoa. Lan eginda irabazten baduzu dirua, tonto samarra zarela esango luke, negozioak egin behar zenituzkeelako. Lan egitea tontoentzat omen da, eta dirua egitea azkarrentzat. Hori da gobernuak sustatzen duen mezua, eskuin mutur liberalaren diskurtsoa. Egia da eskuin tradizionalak lanaren, familiaren eta ordenaren balioak aldarrikatzen dituela. Aldiz, piketea dauden, kaleak mozten dituzten edo Poliziarekin borrokan ari diren langileak desordena eragiten dutela uste dute. Enpresa berreskuratuek nolabait ordenaren aldarrikapena egiten zuten sektore horientzat.

“ ”

Autogestioa lan harreman kapitalista gainditu dezakeen forma ekonomiko potentziala da

Badute babes sozialik auzoetan, herrietan, hirietan?

Babesa tokian tokiko errealitatearen arabera da, batzuek auzoarekin harreman txarra dute, eta beste batzuek handiagoa. Oso handiak diren metropoli- etan edo hiri txikietan egotea desberdina da. Adibidez, Pigüé izeneko leku batean fabrika berreskuratu bat dago. Herriak 15.000 biztanle inguru ditu, eta fabrika da herriko enpresa nagusia. Hasi- eran, jende askok aurreiritzi sendoak zituen, baina denborarekin onartu zu- ten, fabrikak jende askori lana ematen diolako.

Garaian arabera ere aldatu da. Mobili- zazio sozial handiko garaietan, lana alda- rrikatzeko hainbeste mugimendu zegoen garaietan, enpresa berreskuratuak ongi ikusiak ziren. Lan egiten jarraitu nahi zuten langileak zirelako. Batez ere kla-

se ertain eta eskuinaren hedabideetatik oso aurreiritzi gogorrek zabaltzen dituz- te langileen aldarrikapenen aurka. Diote bideak moztzen dituztenak eta lan egin nahi ez dutenak alferrak direla, eta lane- rako arduratsuak direnak molestatzen dituztela. Baina enpresa berreskuratu- en aurka ez zituzten aurreiritziak zabaldu. Ondo ikusiak ziren, lan egin nahi zuten pertsonak zirelako, eta beraien fabrikan jarraitu nahi zutelako.

Industria enpresa tradizionala etatik harago, administrazio publikoko eta hirugarren sektoreko enpresak berreskuratzen dira?

Ez. Badago kasuren bat, estatuarena zen inprenta bat pribatizatua izan zena eta horren kontra borrokatu eta koopera- tiba bihurtu zena. Baina sektore publi- koa desberdina da. Ez da beste kasuetan bezala, enpresa itxi dutela, denak kale- ratu dituztela, eta kooperatiba bihur- tzen dutela. Sektore publikoan ahulenak kaleratu dituzte, kontratu prekarioak zituztenak: hemendik hamar pertsona, handik bat, beste handik beste bi... Hala ere, langile horietako batzuk kooperati- bak sortzen saiatzen hasi dira, jardue- ra ekonomiko ezberdinak izateko, lanik gabe geratu direlako. Baina oraindik ez dago antolaketa sendorik.

Enpresa berreskuratuak euren artean saretuta daude?

Bai. Argentinan badaude hainbat sare.

Ez dago mugimendu bakar bat, baina ba- daude kooperatiben hainbat federazio. Horietan gehienak berreskuratu- tuko en- presak dira. Nik, adibidez, FEDECARA Argentinako Errepublikako Kooperatiba Autogestionatu- en Federazioan hartzen dut parte. Bertan 50 enpresa berresku- ratu inguru gaude, hainbat probintzia- takoak eta sektore askotarikoak: me- talurgiak, grafikoak, ehungintzakoak, elikagaien sektorekoak...

Nazioartean ere antolatuta zaudete, ezta?

Bai. Badago La Economía de los Traba- jadores sare globala. Bertan, nazioarte- ko elkartasun komite bat antolatzen ari gara autogestioaren alde, Argentinako esperientziatik abiatuta. Nahiz eta as- palditik antolatzen saiatu garen, orain- dik hasierako fasean gaude. Helburua da mundu mailan lan autogestionatuaren esperientzia indartsuenetako bat ahalik eta gehien babestea. Herrialde askota- ko erakundeak ari gara hori zabaltzen eta kanpainak egiten. Esaterako, orain berreskuratu- tuko inprenta baten pro- dukzioa abiarazten laguntzen saiatzen ari gara.

Mundu osoan daude enpresa berreskuratuak?

Bai, badaude hainbat herrialdetan. European asko daude, Grezian, Italian, Frantzian, Espainian... Okupazioaren ideiarekin lotuta daude askotan, baina ez dute hainbeste "enpresa berresku- ratu" terminoa erabiltzen, "kooperatiba" baizik. Azken finean, berreskuratu- tuko enpresen fenomeno bat existitu izan da kapitalismoan. Aspalditik izan dira itxi zituzten enpresetatik sortzen diren kooperatibak. Kapitala liburuan ere Marxek pare bat kasu aipatzen ditu oin-oharretan. Baina enpresa berresku- ratuen fenomeno konkretu hori identi- fikatzeko ideia Argentinan sortu zen, 2001eko krisiaren testuinguruan.

Nola proiektatzen da hori guztia etorkizunean?

Argentinako egoera oso kritikoa da gaur egun etorkizunera begira. Antolaketa oraindik hasieran dago, baina atzean dagoen ideia da autogestioa lan harre- man kapitalista gainditu dezakeen for- ma ekonomiko potentzial bat dela. Ez du zertan modu bakarra izan, ez dira enpresa guztiak autogestionatuak izan behar, baina esperientzia horietatik gauza asko ikas daitezke. ●



2004ko abenduaren 22an, Gatic Pigüe eta Gatic San Martín ekoizpen-unitateak desjabetzea eta kooperatibaren izenean jartzea lortu zuten.

'ETXERAKO LANAK' PODCASTA



'Etxerako lanak' podcasta eta bideo-erreportajeak gidatuko ditu urtariletik aurrera Mikel Garcia Idiakenez ARGIAko kazetariak.

Hezkuntza komunitatearen ataria

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Gogora datorkit Iratxe lagunaren izebarekin ikastolan ostegun arratsaldeetan egiten genituen puntu tailerrak. Edo Albaren aitarekin pintura. Txominen amarekin sendabelarrez egindako ukendu tailerra. Gurearekin antzerkia. Orain jabetzen naiz pribilegiatuak izan ginela, ez baitu edonork guraso eta eskolaren arteko lotura estu hori bizi izan haurtzaroan. Gurean hezkuntza komunitatean sinesten zen, etxean eta eskolan, eta teoria bakarrik ez, praktikan jartzen baitzen.

Tamalez orokortu ez badira ere, mar-txan daude hezkuntza komunitatea ardatz duten proiektuak eta ARGIAk leku egin nahi die bere webgunean. Hezkuntza ARGIAk asko jarraitzen duen arloa da eta pauso bat gehiago eman nahi du: hezkuntza kanalak (argia.eus/hezkuntza) diseinu berria, aukera gehiago eta bi nobedade potente izango ditu 2026ko urtarilaren 12tik aurrera.

ETXERAKO LANAK

Podcast berria estreinatuko da: *Etxerako lanak*. Mikel Garcia Idiakenez kazetaria izango da gidaria eta hezkuntza munduko adituak izango ditu bidelagun asteleheneroko maiztasunarekin argitaratuko den irratsaio honetan. "Hezkuntza eta heziketa izango ditu oinarrian podcastak, eta gaia eskolako lau hormetara mugatu gabe, heziketa gurasoenganaino, hezkuntza komunitate osora zabaldu nahi dugu", adierazi du Garciak.

IKUSI ETA IKASI

Bideoerreportaje sail bati ere ekingo diote hileroko maiztasunarekin, *Ikusi eta ikasi*, hileko bigarren astelehenetan. Kasu honetan, eskoletako esperientzia onak ekarriko dizkigute, guretzat interesgarri diren adibideak denon eskura jarritz. "Askotan ez dugu jakiten bizilaguna zertan ari den ere, eta horrelako esperientziak denon eskura jartzea uste dugu

G U R E
> > L A N A K
Z U R E
B A B E S A > >
behar du

“”

Euskal hedabide independente bat babesteko, sozialki euskal gizartearekin konprometitzeko eta hauei denon artean bultzadatxo emateko. Mila esker zuen lan onagatik!

Ursurbildik Karmelek

“”

Jorrazten dituzuen gai interesgarriengatik eta astero-astero euskarari ematen diozuen bultzadagatik.

Dimatik Jose Luisek

“”


Kalitatezko euskal informazio independentea delako.

Baionatik Uxuek

interesgarria dela hezkuntza munduko denentzat", esan du kazetariak.

Gure ikastolaren, irakasle eta guraso konprometituen inguruko oroitzapen onez bete da bihotza. Baina akats ohiko batean erori ziren eta esan beharra daukat: kopiatzea zerbait oso grabea dela irakatsi ziguten. Ba ez, jada egin da, asmatuta dagoenari erreparatu eta ona bada, baliagarri bazaizu, kopiatu beldurrik gabe! ●

Martinarriko motrailuaren dieta



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

O bekuri (Araba), duela 14.000 urte. Goi Pleistozenoaren amaieran, Martinarriko asentamenduan bizi zen komunitateko kideak, aurrez ehotzeko erabilitako lauza bat hartu, eta motrailu gisa berrerabiltzen hasi ziren. Horrenbestez, Europan aurkitutako motrailurik zaharrena da Martinarrikoa.

Objektua Trebiñuko aztarnategian aurkitu ondoren, bestek beste EHUKo Alfonso Aldayk eta Adriana Sotok osatutako taldeak ikerketa proiektu bat diseinatu zuen tresnaren funtzioa ulertze aldera. Eta emaitza *Environmental Archaeology* aldizkarian argitaratu dute berriki.

Tresna kontu handiz babestu, garbitu eta aztertuta, eta aurkitutako sedimentuak alderatuta, ondorioztatu dute ziurrenik ezkurak prozesatzeko erabili zutela. Gainera, hipotesia baieztatzen du inguru haietako Paleolito garaiko landarediak. Aldayren hitzetan, “antza denez, *quercus* generoko basoaren hedapenak ezkur kantitate gero eta handiagoa eskaini zien bertako gizakiei”. Eta zera gaineratzen du EHUKo ikerlariak: “Asentamendu estrategiak, bizirauteko praktikek eta talde mugikortasun patroiek iradokitzen dute aztarnategi irekien sare bat mantentzen zutela, behin eta berriro jotzen zutela horietara, eta bizitegi funtzioa eta funtzio espezializatuak konbinatzen zituztela”.

Garbi dute Martinarrikoa aztarnategi eredugarria dela, hau da, ez dela salbuespentzat jo behar, eta Goi Pleis-



tozeno amaierako gizakien portaerari buruzko informazio baliagarria ematen duela. Garai hartan, Historiaurreko zatirik handiengan bezala, gizakiak ehiztari-biltzaileak ziren. Milaka urte batzuk falta ziren Neolitoan nekazaritzan jarduteko. Baina landare-elikagaiak biltzeko jarduera ehizaren osagarritzat jo izan da. Horrek esan nahi du ehiztari-biltzaile haiek haragijaleak zirela nagusiki, eta landare jatorriko elikagaiak dietaren osagarri zirela.

Baina Martinarriko motrailuak adierazten du landareek uste baino garran-

tzia handiagoa zutela dietan. “Horrek esan nahi du milioika pertsonak bizirik iraun dutela basa landare jangarriei esker”. Landare horietako batzuek ez dute prozesatzea eskatzen, baina beste batzuek bai eta motrailuak adierazten du “giza komunitateek eginahal handiak egin zituztela euren dietan landare baliabide prozesatuak sartzeko, ekonomia neolitikoa iritsi baino askoz lehenago”. Alegia, nekazaritza garatu baino lehen ere, gizakiek ahalegina egin zuten dieta orojale orekatuagoa edo, nahi bada, begetarianoagoa lortzeko. ●



NO-DOa berriro ikusi nahi?

NO-DOa (Noticiarios y Documentales) Frankismo garaian, zehazki, 1942 amaieratik 1976ra Espainiako zinema aretoetan derrigorrez proiektatzen zen albistegia izan zen. Eta hemendik aurrera edozeinek albistegi horiek berriro ikusteko aukera izango du Espainiako Kultura Ministerioa-

ren ekimenez; lehen bi urtetako NO-DOak dagoeneko Platfo plataforman daude guztien eskura. Ikerlariei materiala eskuratzearazteaz gain, edozeinek kontsulta ditzake 10 minutu inguruko bideoak, adibidez, propaganda faxista zenbateraino aldatu den (ala ez) ikusteko. ●

ERLEA SAKRATUA: GALZORIAN DAGOEN ERRESPECTU ZAHARRA



MATTIN JAUREGI
BALERDIPEKO ERLEAK

Gure herriaren istorio zaharrak bilatzen hasi orduko, beti agertzen dira erleak, antzina isilean baina irmo bizi ziren maisu txiki horiek. Egutero ez dut beste konturik. Eta uste dut, nolabait, oraindik badiotela zer esan gure gizarteari, guk haiei entzuten ez diegun arren.

Gaurkoan ere erleen inguruko gai bat hartu nahi dut, baina ez ohikoa, ez produktibitateari edo tratamenduei buruzkoa. Baizik eta gure arbasoek erlea ulertzeko zuten modua eta egun kontuan hartzen ez dugun ikuspegia: erlea izaki sakratua zela. Gaur egun gure esku artean unitate ekonomiko bihurtu duguna, lehen saldu ezin zen zerbait zen. Ez zen ondasun bat; erlauntza etxeko arimaren luzapena zen, eta haren truke ezin zen dirurik hartu. Hori ez da poetika hutsa: gure herriko tradizio zaharretan horrela jasota dago.

Azkuek jasoa du erlea erostea ez zela zilegi diruaren bidez, eta erleak eskuratzeko beti beste zerbait eman behar zela trukean. Horregatik, erleen salerosketa gariarekin, arropekin, lihoarekin, abereekin edo etxean erabiltzen ziren bestelako ondasunekin egiten zen, baina ez diruarekin. Ahozko tradizioak berak ere dio Euskal Herriko toki askotan esaten zela erleak ez direla diruz saltzen, baizik eta zerbaiten ordez hartzen. Testuetan jasotzen da erleak diru-trukez saltzeak "zoritzarrea" ekar dezakeela, eta truke bidez jasotzea zela bide egokia. Horren adibide da Martxel Aizpurua erlezainaren testigantza: ez zioten erlea diruz eman, baizik eta baba-zaku baten truke.

Ez da aspaldi, erlezain zaharrek esaten zuten erlea ez zela akabatzen: "Hil egiten da". Hitz egiteko modu hori ez da txantxa linguistikoa. Horrek erakusten du erlea ez zutela animalia arrunt gisa ikusten, gizakiaren borondatean menpeko izaki gisa, baizik eta bere bide propioa zuen zerbait bezala. Erlea bere bidean joaten zen, eta gizakiak ez zuen heriotzaz hitz egiten. Errespetuagatik. Apaltasunagatik.

Erlakume bat pausatzen zenean zuhaitz baten adarrean, ez zen egungo jabego borrokarik pizten, ez "erlakume hau nirea da" eztabaidarik. Zuhaitz hura markatzen zen, gurutze txiki bat eginda labanaren puntaz. Gertutik ikusita, keinu xume bat dirudi, bai-



na sakonean, gizakiaren eta erlearen arteko adostasuna zen: "Hemen hartu duzu aterpea; hemendik aurrera, zainduko zaitut". Jabetza-aldarrikapena baino gehiago, konpromiso espirituala zen. Zuhaitza, beraz, ez zen seinalatzen jabegoa aldarrikatzeko, baizik eta erleak bertara etortzea bedeinkazio moduan hartzen zelako.

Eta ohitura hunkigarriena, seguruenik, heriotzarekin lotua zegoena zen. Etxeko norbait hiltzen zenean, erleei albistea ematen zitzaion. Erlauntzaren aurrean jarri, tiki-tiki ukitu, eta esaten zitzaion: "Nagusia hil da". Ez zen sineskeria huts bat: erleak familiaren parte ziren, eta familiaren alaketak haiei jakinarazi behar zitzaizkien. Tradizio hori Europa osoan agertzen da, baina gurean bereziki mantendu zen, eta badu oraindik ere zentzua: erleekin hitz egiteak erakusten du gizakiak ez zuela haien bizitza bere gain hartzen; haiekin partekatzen zuen.

Horren harira, askotan aipatu izan da, herri-memorian jasotako kontakizunen arabera, erlauntzak noizbait gari-kantitate baten truke ere alda zitezkeela. Ez diruaren bidez, baizik eta elikaduraren bidez: bizitzaren truke bizitza. Ez da datu erabat dokumentatua, baina bada Martxel Aizpuruaren lanetan eta herri kontakizunetan agertzen den ideia: erlea ez zen merkantzia hutsa, eta trukea -egongo balitz- materialtasun apal eta sakon baten bidez egiten zen, ez merkatuaren legeen arabera. Eta horrek argi uzten du zein tokitan jartzen zen erlea gure kulturari.

Eztiak bazuen balio ekonomikoa, eta trukeetan erabiltzen zen; baina erlea bera ez zen saltzen. Ezti pote bat ematea ez zen "salmenta" bat; ohore bat zen. Ezti hura ez baitzen soilik elikagai bat: erleen lan isilaren islada zen. Gure arbasoek ez zuten ezti kilotan pentsatzen; argian, osasunean eta bedeinkazioan pentsatzen zuten.

Gaur egun, profesionalizazioak, datuek eta merkatuak gure lana baldintzatzen duten honetan, arriskua gero eta handiago da: erlea tresna bihurtzea, unitate bat, zenbaki bat. Eta horrek, nire ustez, erlezainaren lanbideak duen oinarri kulturala eta sinbolikoa lausotzen du. Zeren eta erleak ez du gure mendekotasuna behar. Gu gara haien mendekoak. Ingurumen osasuntsu bat, baso anitz bat, eta lurra zainduta edukitzea behar dute, ez gure grafikoak.

Horregatik uste dut merezi duela tradizio zahar haiek berriz gogoratzea. Ez nostalgia, ez folklorismo. Baizik eta zerbait galdu ez dadin. Gure arbasoek bazekiten gizakiak ez zuela beti agintzen. Naturarekin hitz egiten zuten, eta erleei dei egiten zieten ahots apalez. Guk gaur galdu dugun hizkuntza bat zen hura.

Erlea sakratua zela esateak ez du esan nahi gaur erlijio-ikuspegi batera itzuli behar dugunik. Esan nahi du errespeta behar dugula berreskuratu. Erlea ez da gurea. Ez da inoiz izan. Guk soilik partekatzen ditugu haiekin paisaia, argia eta denbora. Eta hori ulertzen dugunean, orduan hasiko gara benetan haiek zaintzen. Eta agian, haiek ere gu zaintzen. ●

A ZE FAUNA!

UR AZPIKO IBILTARIA



NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Erreka bazterrean “tit-tit-tit” entzun da. Hara! Hegazti bat doa urgora hegan, eta ur azal gainean dagoen arroka batean geratu da. Ezin da geldirik egon, tarteka isatsa jaisiten du, hankak ere tolestu eta erdi-makurtuta, batzuetan hegalak erdi-zabalitzen dituela. Eta zast! Begi kliska batean ur azpian sartu eta mokoan intsektu bat duela atera da.

Tamainaz zozoaren tankerakoa da, baina lodikotea, hegal txikiko eta isats motza izanik, mozkote xamarra da ur-zozoa. Arre kolorekoa du gorputz osoa, paparra izan ezik, hau zuria baitu. Erreketan bizi den hegaztia da hau; hain zuzen ere, bere izen guztiek egiten diote erreferentzia horri: errekazozo, urtxori eta, ofiziala, ur-zozo (*Cinclus cinclus*). Ibai, erreka eta ur-lasterren inguruan bizi den hegaztia da, ornogabe urtarrak baitira bere elikaduraren oinarria: trikoitro, burrunzi eta ur-zorriak, besteak beste. Lapurdiko Dassancek eta Elizalde idazleek ere kon-

tatu ziguten hori: “Zer-nahi har eta xixari jaten omen du ur barnean: arrainik, ez”. Ornogabeak harrapatzeko duen teknika berezia da. Ur-zozoa ur azpira sartzen denean guk ere burua sartuko bagenu, ur hondoan ibiltzen dela ikusiko genuke. Hanka-puntetan eta hegalak erdi zabalik dituela mugitzen da hondoko arroka artean, eta arroka batzuk iraultzen ditu, xomorro bila. Bere odolak, beste hegazti txiki batzuk baino oxigeno gehiago darama. Horri esker, urpean 30 segundo irautera heldu daiteke, nahiz eta 10-20 segundoko urpe-aldiak diren ohikoenak. Ehizatzeo ur garbi eta azkarrak ditu gustuko.

Habia egile arrunta da Euskal Herriko eskualde heze gehienetan, eta urriagoa, aldiz, eremurik lehorrenetan. Habia ur-bazterrean egiten du: ur-saltoen atzealdean, errota zaharren paretetan edo zubi azpian aurkitzen dituen harri-zuloak baliatzen ditu. Martxo-apiril aldera ekiten dio habia eraikitzeari bikoteak, zulo horiek goroldioz eta lastoz

beteta, eta bertan erruten ditu arrautzak emeak. Urtean 2-3 errunaldi izan ohi dituzte eta bakoitzean 4-5 arrautza erruten dituzte. Arrautzak inkubatzen dituen emea izaten da, nahiz eta momentu labur batzuetan arrak erreleboa hartzen dion. Batez beste 16 egun behar izaten dituzte arrautzek eklosionatzeko eta behin txitak jaiota, bi gurasoek elikatzen dituzte 18-22 egunez, txitak oraindik habian daudela. Hala ere, txitak habiatik kanpo daudenean ere gurasoek haiek elikatzen jarraitzen dute, geroz eta gutxiago, txitek haien kabuz elikatzen ikasi arte.

Gurean populazioak egoera onean daudela badakigu, baina erreketara hain lotuta dagoen espeziea izanik, erreken eta horien arroen eraldaketa zein uren kutsadura espeziearentzat kaltegarri dira. Kalte horiek batzuetan zuzenak izan ez arren, erreketako ornogabeak kalteztzen dituzte. Eta ornogabeak desagertzen edo asko murrizten badira, ur-zozoa elikagairik gabe gelditzen da. ●

UR-ZOZOA

Cinclus cinclus

TALDEA: Ornoduna / Hegaztia.

NEURRIA: Mokotik isatsera 17-20 cm eta hego luzera 25-30 cm.

NON BIZI DA? Erreka eta ibaietan.

ZER JATEN DU? Ornogabe urtarrak.

BABES MAILA: Europar babestuta.



GILGIR2 / CC BY-SA 2.0

SUKALDE-OHOL ETA TRANGADEL ZUREZKOAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Sukalde txoko guztietan bizi da ohola. Sukalde-ohola gehienetan, baina baita trangadela ere. Trangadera, pikadera, tranbil, trangel, idulki eta trokote ere esaten zaio, eta sukalderako edozein gai ganean jo eta txikitze enbor lodikotea izan da atzo arte. Bertan jo eta txikitzen ziren su egurra bezala haragia, arraina eta barazkiak. Trangadela zuhaitzen enborraren ipurdia edo motzondoaren puska bat izan ohi zen, enborraren zatirik gogorrera; maizenik, sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*), haritz (*Quercus robur*), platano (*Platanus hispanica*), pago (*Fagus sylvatica*), olibondo (*Olea europaea*) edo haritz amerikarra (*Quercus rubra*). Ez dut bere berri zuzenik, baina egingo nuke artekia (*Quercus ilex*) ere erabiltzen zela lan horretarako.

Trangadera bazter batean zut eta gotor egon ohi den bezala, nonahi ikusiko duzu sukalde-ohola: mahai ganean, sukalde gainaldean, pertza beroaren ipurdian... Oholak erabilera ugari du eta, langintza horietarako, komeni da zura gogorra eta trinkoa izatea, poro itxikoa: olibondo, platano, pago, lizar (*Fraxinus excelsior*) edo makala (*Populus nigra*) gehienetan; baina baita intxaurrondo (*Juglans regia*), astigar (*Acer spp.*), arte, hagin (*Taxus baccata*) eta ezpela (*Buxus sempervirens*) ere.

Gaur egun, higienezaren izenean, beste material batzuk ikusten dira gure jakiak lantzeko aldare. Labanaren edo marrazaren ahoarekin zura ebaki, pitzatu eta zauritu daiteke. Zuraren arrasto horietan gaitza sor diezagutzen bakterio, onddo eta abar apopilo jarri omen daitekeela diote. Gai horren inguruan eztabaida polita dago. Ordezko oholak beste material batzuekin egindakoak proposatzen dira, erabilienak

plastikoa eta paper prentsaturak dira. Horiek abantailak ere badituzte, sukalde handietan edo profesionaletan, adibidez, zer material lantzeko erabiliko diren, kolore batekoak izango dira: gorria okela gorri gordina, horia okel zuria, marroia erretako okela eta hestebetea, urdina arraina eta itsaskia, berdea barazki eta fruitu eta zuria ogi gozo eta gazta. Bai plastikoa eta bai papera zura bezain azkar ebaki eta zauritzen dira, eta hezetasunari eusteko eta horrekin onddo, bakterio eta abar sortzeko habia ederrak dira. Material horiek gogotik eta sakon garbitu behar dira. Hala ere, oholaren ebakiduretan faltako diren txirbiltxo pusketatxoek badakizu non amaitu duten: zure ahotik barrena sartu dira.

Badira labana txorrotxenarekin ere ia zaurituko ez diren materialezkoak ere: altzairua, titanioa, beira eta harria. Horiek baina labana kamustuko dute, eta nola gainera! Zure labanak maite badituzu, inolaz ere ez erabili. Banbuz-

koak ere badira, eta arazo bera dute: kamutsarazle bikainak dira.

Ni zuraren aldekoa naiz, behar bezala zainduta. Erabili orduko garbitu, lixiba urardotuarekin busti eta igurtzi. Koipe edo antzekoren batekin zikinago badago, xaboi-uretan bustitako espartzuarekin garbitu. Usain zakarra edo orbain egoskorrik badu, ozpinarekin garbitu. Beti-beti azkar urberritu eta lehortu. Lehortzeko trikimailu polita bada: hormaren kontra okertuta jarri, airea bi aldeetan izan dezan.

Zur ohola zaintzeko nahasketa hau egin: elikagaiekin erabiltzeko olio minerala lau zati, eta argizari naturala zati bat; jarri maria bainuan, urtu eta nahasi. Zura inpermeabilizatu eta gozatzen du, eta zartatu, eten edo kobatzea eragotzi. Tarteka, eman oihal batekin. Zahartuta edo itsusituta badago, lizatu aurrez.

Horiek erabilia txarrenera zur zatitxo bat jango duzu, elikagai organikoa. Mikroplastikoa baino hobea. ●



Ezpelkizko sukalde-ohola.

URRUÑA

BARATZE ETA SUKALDE MUNIZIPALA, HERRI LANGILEEK AURRERA ERAMANAK



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Urteak daramatzate Urruñako Herriko Etxean zirkuitu laburrak eta tokiko elikadura bultzatzen. “COVID-19a bizi izan genuenean argi gelditu zen hurbileko mozkinak beharrezkoak direla, kamioiak hiru egunez gelditzen badira aski gaizki gelditzen baikara gehienak”, adirazi du Marie Christine Elizondo zinegoziak, laborantza eta elikadura gaien arduradunak. 2020an sartu ziren udalean, eta bi proiektu garrantzitsu jarri dituzte martxan tarte honetan: herriko etxearen baratzea sortzea, eta sukalde municipala eraikitzea.

LABORARIAK, UDAL LANGILEAK

“Herrian bazegoen lur bat, gu sartu aurretik eraikitzeke erabili nahi zena, baina erabaki genuen egokiago zela lur hori baratze gintzari eskaintzea”, dio Elizondok. Lur sail horretan jarri zuten Herriko Etxearen baratzea, eta 1.700 metro koadro negutegi, kanpoan barazkiak jartzeko hektarea erdi soro eta arbolak jarri dituzten beste lursail bat ere badituzte. Aldi berean, Urruñako eta hurbileko laborariekin lanketa egin zuten, haien mozkinak non eta nola saltzen zituzten ikusteko eta haiekin harremanetan jartzeko.

Herri langileak dira baratzean aritzen direnak. Bat ari da herriko baratzean nekazari, baina puntualki, lan karga handiagoa dagoenetan, beste herri langileek ere laguntzen diote. “Negutegietan domotika



sartzea erabaki dugu, eskulana ahal bezain arina izan dezan baratzezainak. Larunbat edo igandez negutegiak pixka bat ireki edo arrosatu behar badira, adibidez, horiek tablet bidez egiten ahalko dira”.

HERRI SUKALDEA MARTXAN

Proiektuaren bigarren hanka sukalde municipala da. Nizatik hurbil dagoen Mouans-Sartoux herrian izan ziren Herriko Etxeko kideak bisitan, han 2021etik antzeko proiektu bat martxan baitzuten. “Hango eredia ikusita, hemen baratzea eta sukaldea lotzeko egitasmoa garatzea erabaki genuen”. 2025. urte hasieran ekin zieten eraikineren obrei, eta hamar hilabetetan bukatu dute. “Sukaldean aritzeko

lau langile hartu ditugu, eta 300 bazkari banatzen dira egunero, baina 800era irits gaitetzke”. Momentuz, eskola publikoak hornitzen ditu sukaldeak, baina adineko jendeari etxerako menuak eskaintzea eta herriko ikastola ere hornitzea dituzte helburu.

“Baratzetik ez da nahikoa janari ateratzen sukaldea hornitzeko, eta gainerako produktu guztiak ez dira Km-0 izaten ahal, baina saiatzen gara ahal bezain hurbilekoak izan daitezen eta mozkinen kalitatea bermatzen”. Departamenduan lehenbizikoak dira horrelako egitasmo bat martxan jartzen, eta Elizondok nabarmendu du proiektuak interesa piztu duela inguruko herrietan. ●

Jai hauetan ere ekologikoa, dena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi

Babesleak:

Euskadi, auzolana



Europar Batasunak
kofinantzatuta



ekolurra.eus

Saldutako idealak, krisien deiadarrak

Traiziorik ageri da Leonardo Da Vinciren koadro mitikoan, *Azken afaria*-n. Beñat eta Unai Gaztelumendiren komikian, bertsolari ohi eta aspaldiko lagun arteko afaria da ageri dena, ziurrenik inoiz gehiago gertatuko ez den juntadizo horixe bera. Da Vinciren koadroan bezalaxe, lagun afari horretan ere ageri dira traizioak. Mota askotakoak daude, baina okerrenak dira, betiko legeak, norberak bere buruari eginiko etoikeriak. Geure buruen Judas gara, edo izango gara, denok.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  ANDONI CANELLADA / FOKU

Nork ez zuen esan harro (-tasunez edo -keriaz) gizartea aldatzera eramango zukeen lanpostu bat bilatuko zuela, eta horretan egingo zuela lan, beti, iraultza egunera arte, eta azkenean funtzionario egin da? Edo nork esan zuen ez zela guraso izango, ez zituelako sistema kapitalistak eta heteronormatiboak inposatutako harremanak erreproduzitu, eta azkenean bi umeren aita edo ama da, eta bikotekidearekin ez, zeren ezkontzaren aurka dago, baina bankuarekin ezkondu da? Segi dezakegu halakoak aletzen. Izan ere, gizarte eta herri moduan, Euskal Herria “altxatu behar dugu” esatetik, gimnasioan halterak edo pisuak altxatzera igaro gara. “Haurdun gaude” esatera. “Ez naiz arrazista” esaldiari “baina” bat baino gehiago gehitzera. Filologoaren, filosofoaren, soziologoaren edo dena delakoaren iraultza grina ahaztu eta irakaskuntza masterra egitera. Amets egitetik, ametsak zapuztera. Gaztelumenditarrek diote: horixe dena, krisi betean gaudenaren adierazle da.

Krisian dago Martin Artola komikiko protagonista. 40 urte bete ditu, eta dagoeneko ez da lehen zena. Ez dira berdinak afarirako mahaiaren inguruan elkartu dituen lagun zaharrak ere, Ekiñe, Iparra, Sara, Urko eta Fermin. Denbora iragan da azkeneko elkartu zirenetik, eta zer esanik ez orduak eta orduak elkarrekin ematen zituztenetik, elkarri esaten ziotenetik ez zirela inoiz haien bideak bereiziko, iraultza egingo zutela azkenera arte... Azkenean, bakoitzak bere bidea hartu du bizitzan, eta askok haien gaztetako idealak saldu dituzte bidean. Guraso izango ez zena guraso da orain, euskararen eta independentziaren aldeko borroka beste plano batera igaro da, eta oro har, militantzian, galdu samar daude, hala nola GKSren eta Ernairen artean. Tira, 40 urte dituzte; ez dira gazte-gazte. Orain, kaleko iraultza baratzean egitera pasatu da bateren bat. Munduko ekologistena zena furgonetarekin dabil harat eta honat. Eta grinatsuen eta lan harreman horizontalen aldekoa zena,

funtzionario da orain; bokazio profesionalak lurperatzera heldu da, egonkortasun ekonomikoaren izenean. Polizia sartu denak ere gauza bera dio.

Beñat Gaztelumendi eta Unai Gaztelumendi anaiek segida eman diote 2021ean *Bertsolari* aldizkariarekin kaleratu zuten *Bidea da borroka* komikiari, eta *Azken afaria* plazaratu dute orain, azaroan. Bertsolaritzaren bueltan zihoan lehenbizikoa, Barakaldoko (Bizkaia) BECen egitekoa zen txapelketa nagusiko finalera bidean baitzioan Martin Artola, eta auto-bidaia horretan sorturiko gogoetek zuten presentziarik handiena istorio horretan. Oraingoan, ordea, bertsolaritzatik dezente aldenduta, 40 urteko krisian murgildurik ageri zaigu Martin eta bere lagunartea. Baina orokorrakoa da krisia. Herri gisakoa ere bada, funtsean.

Krisiez gogoeta eta irri egitea eskatzen du komikiak. Halaxe elkartu gara Beñat Gaztelumendirekin. Berak egin du gidoia, eta Unaik marrazkiak.



Beñat eta Unai Gaztelumendi, 'Bertsolari' aldizkariarekin argitaratu duten 'Azken afaria' komikiarekin.

ERREALITATEA ETA FIKZIOA

40 urteren bueltan ditu Martin Artolak, bertsolaria da, gipuzkoarra... baina ez da Beñat Gaztelumendi. Gidoia idaztean, ez du bera islatu istorioan. Baina: "Ez dago errealitate gabeko fikzioz, ez eta fikzioz gabeko errealitatez ere". Hala egin du ñabardura, eta aitortu du Martinen burutik pasatzen diren hainbat kezka ere igarotzen zaizkiola bere kolkotik. Kontu batzuk badaude muturrera eramanda, demaseko bihurtuta, istorioaren eta komikiaren trazuen mesedetan, baina uste du jendea senti daitekeela hainbat momentutan ordezkaturik, gehiago ala gutxiago, adinaren eta ingurugiroaren arabera, jakinda ere gizon gipuzkoar baten istorioak mugatu egiten duela irakurle profila. "Saiatu gara ahalik eta puruen egiten, pertsonaiak ahalik eta errealean izaten", adierazi du.

Luzera aldetik, denetariko kapituluak topa daitezke komikian. Desorekatuak dira. Batzuetan, bertsotik datozen tresnak erabili dituzte, hala nola errimak, zenbaitetan narratzaileak hala hitz egiten baitu. Beste batzuetan, aldiz, umore gehiago erabili dute, edota gehiago okertu eta muturrerago eraman dute. Kapitulu bakoitzak eskatzen zuenaren arabera, malgu aritu dira.

Gai asko ukitzen ditu komikiak, baina ez dute askorik sakondu bakoitzean. Hala egin dute, nahita. Erreferentziak ugari dira, oso bizkorak eta efimeroak, aurreko komikiaren ildoari segituta. Ekologismoari loturiko kapituluak, esaterako, Jakoba Errekondo eta ARGIAren *Bizi Baratzea* liburua ageri dira; furgonetaren demasa ageri denean, berriz, Pirinio mendizaleentzat aski ezaguna den Zurizako kanpina identifikatuko da; literaturzaleentzat, Bernardo Atxaga, Jon Kortazar eta Joseba Sarrionandia; Txirrita ere bai; eta herri mugimenduei dago kienean, besteren artean, siglen artean galtzeko moduko orri-parea topatuko du komikia irakurtzen duenak. Bizia da istorioa kontatzeko manera.

BIRIBILDU GABEKO BERTSOA

Duela urtebeteko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa hasterako gidoia amaituta edukitzea zen Beñat Gaztelumendiren asmoa. Baina bistan da: korapilatu zitzaion. Trabatatu zen bidean: "Tonua ez nion harapatzen, gai batzuek gehiegi atrapatzen ninduten eta ez nengoen eroso, eta, gero, konturatu nintzen ez zihoala bat txapelketarako egiten ari nintzen prestaketarekin; bata besteari kalte egiten zion". Txapelketara segurtasunez heldu nahi

zuen, hain justu ere "zalantzak plazara-terakoan ere ziurtasun batetik kantatu eta eroso egon", eta aldiz, bazekien ez zela gai izango komikiko gaiei konponbidea bilatzeko, hau da, bertsoa biribiltzeko. "Bertsotan, ariketa bat jartzen dizute eta ebatzi egin behar duzu, eta momentu batean norabait iritsi; komikiak, aldiz, ez dauka zertan inora iritsi, eta hobe da bidea ondo kontatzea", aitortu du.



Biribildu gabe utzi du komikia, hortaz. Bazekien halaxe egingo zuela, halaxe zegoelako erosoan, eta horrela ikusten zuen aproposen: "Biribiltzera behartze horrek batzuetan istorioa bera ere behartu egiten du, eta ez dio uzten bere pertsonaiari bere bide naturala egiten".

Orain, lana defendatu beharra dute gaztelumenditarrek. Gidoigileak aitortu du "erreparoa" ematen diola jendearen eskuetan ipini eta edonork irakurri ahal izateak, "dezente biluztu" direlako. Bertsolaritzarekin alderatzeko eskatu diogu, nahiz diziplina horretan ohituago egon: "Bertsotan, sortze prozesua jendaurrekoa eta hain bortitza denez, bat-bateko tasunak ere laguntzen du, eta jendeak akats txikiak barkatu ditzake; kasu honetan ez dago halakorik, gauza bakoitza ondo pentsatzeko astia izan dugu, eta ez dago atzera bueltarik". ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA NEREA IBARZABALEN "GAUEKO TXANDA" LIBURUAREN PASARTE BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

9	3	7		6				
8			7	1	5			
	5		8	3		7		4
	2		3	5	7	4		6
						7	5	
	7		4	8	1	2		
5		8		4		6	2	
			6				5	3
3			7					

ERRAZA


7			8	4			5	
				9		3	7	
		9	1			8		2
	9	3			6		1	4
							3	
	1	5						9
		6	5	2			8	
			7		3	6	9	
					1			

ZAILA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Baso.
2. Ur korrante naturala.
3. Harri handi samar.
4. Zerbaiten sortzaile arrak.
5. Higuin.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				T	A	E	R	A
2	O				R	A	I	N
3	T	X				E	L	A
4	A	B	E				S	A
5	P	E	D	I				A
6	P	I	N	P	O			

EBAZPENAK

9	3	7		6				
8			7	1	5			
	5		8	3		7		4
	2		3	5	7	4		6
						7	5	
	7		4	8	1	2		
5		8		4		6	2	
			6				5	3
3			7					

ERRAZA

ZAILA

PUZLEA: "GIZA HAREMANETARAKO ARDURADUNAK ALDAKAKETAREN BERRI EMAN DIONEAN, BILLEK BURUAREKIN BAIETZ EGIN DIO. EZ DU BERE BETIKO "BABABA" AZELERATUA AHOSKATU."

5XS: 1. OIHAN, 2. IBAIA, 3. HAITZ, 4. AITAK, 5. NAZKA

HIZKI BERAK: 1. TRATIERA, 2. OTARRAIN, 3. TXARTELA, 4. ABERATSA, 5. PEDIAITRA, 6. PINPORTA.



Azkar, eder eta zikin

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA

Hilabete konplikatu izaten da niretzat azaroa. Barrurako izaten dut gorputza, neguko hibernazio beharra deiadarka. Agendak, baina, nekez ematen dit tregoirik. Loarekin joaten ez den neke mota hori begitartean pilatzen zaidan hilabetea da azaroa, ez bairik gabe. Aurten ere arrastaka heldu naiz hilabetearen erdira, baina hama-bosgarrenak arnasa hartzeko aukera bat ekarri dit opari: lagun batzuk osatu duten taldearen lehenengo kontzertua, Arrasateko mendi magalean kokatutako baserri batean eta lagunartean.

Baserriko ate aurrean soinu ekipoa prest eta jende taldetxoa bilduta egon da heldu garenerako. *Rural mamarra-txeoa* izan da taldekideek zehaztutako janzkera kodea eta zintzo egin diogu kasu; nahasean dira mahoizko prakak, *animal print* estanpatuak, saretadun topak, adarbakarrak eta mendiko botak. Eta estetika, apaingarri hutsa baino, Pen-

tzauko Jatzu laukoteak gorpuzten duen proposamenaren ispilu da. *Rural mamarra-txeoak* hiru ardatz elkartu, nahastu eta berresanahitzen baititu: landa eremua, kuartasuna eta punka.

Baserriaren atarian aterpe hartu eta ekin diote kontzertuari, espazioa, lurra eta elkar zaintzeko ohar batzuk eman ondotik. Zortzi abestiko zerrenda osatu dute, abesti propioak eta bertsioak tartekatuta. Errenkadan etorri zaizkigu punk doinu klasikoak aldarri eraberrituekin (*Eskorbuto hecho por gordas*) eta berriagoak aldaera propioekin (Perlata taldearen *Tu presencia*), baita ezagun zaizkigun beste hitz batzuk punk doinuetan ere (Ain_1 talde arrasatearraren bertsio bat eta Ekhiñe Eizagirren poema bat). Eta sortu dituzten lau abestiak ereserkiak dira, mendi magalean gogoz ulu, nahieran salto eta elkarrekin dantza egitekoak.

Gorazarre batean nahastu zaizkit esaten dutena, sortzen dutena eta gorpuzten

PENTZAUKO JATZU

NON: Arrasateko (Gipuzkoa) baserri batean.

NOIZ: azaroaren 15ean.

dutena. Bai, Pentzauko Jatzu gorazarre bat da. Gorazarre bat erratzeari, errari ibiltzeari eta errabiari. Kuirtasunaren munstrotasun ederra eta landa eremuaren basa, punkaren azkartasunarekin elikatzen dituen gorazarre bat. Ulua eta dantza, amorrua eta maitasuna, autogestioa eta plazera txirikordaten duten espazioei gorazarre bat.

Gorputzaldiari guztiz buelta emanda heldu naiz etxera. Konbentzita azaroko neke honi, loak baino, dantza kolektiboak ematen diola errazago buelta. Zehatzago esatera, dena suntsitzeaz eta lubaki gozagarriak eraikitzeaz ari den musikak sortzen dituen dantza kolektiboek. Gure aukera gozatzea da, margotu ezin daiteken margotzea esanez bukatu da azken abestia. Eta gure bulegoan dagoen pegatina etorri zait gogora: "*Subertsio-dosi gozagarri batek zerbait erreale bihurtzen nau*". Eta arnasa ematen digu, barru-barrutik. ●



MUSIKA

Ahots ederrak eta profesionaltasuna



OLBE

OLBE-REN OPERA DENBORALDIA

ZER: 1- Verdiren *La Forza Del Destino*. 2- Cilaren *Adriana Lecouvreur*.

NON: Bilboko Euskalduna Jauregian.

NOIZ: Urriaren 25ean eta azaroaren 22an.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Aurreko artikulu batean aipatu nuen bezala, OLBEk denboraldi hasierarako bi izenburu interesgarri eta bizigarri programatu ditu, eszenaratze onak izan dituztenak.

Lehen opera Giuseppe Verdiren *La forza del destino* izan zen. Oraingo honetan ere, obrak zorte txarra ekartzeko duen ospea gauzatu zen. Zoritzarrez, estreinatu baino egun batzuk lehenago Carmen Solis protagonistaren ama hil zen. Batzuetan ez dira sineskeria hutak izaten. Eta horregatik du ohi baino meritu handiagoa sopranoak egin zuen emanaldi bikainak.

Hasteko, 1862an San Petersburgon estreinatutako obrak beste garai batera (1936ko Gerra) egokitutako eszenaratze bat izan zuen, zentzu handirik ez zuena. Baina oso modan daude denbora-birrikapenak, hori operako publiko berriarentzat pizgarria izango balitz bezala. Nola ere, ez zion trabarik egiten tramari. Eszenaratzeari berari dagokionez, noizbehinka bi mailatan ekintza ahalbidetzen zuten bi eszenario gainjarri agertzea ez

zen berritasun handia, baina atsegina izan zen ikusteko, egia esan.

Alderdi musikalean, Carmen Solisen aktuazio bikainaz gain (adibidez, *Pace, pace aria*-n txalo zaparrada handia jaso zuena), Angelo Villari izan genuen, Don Alvaroren paperean, zeinak ahots indarraren erakustaldia egin baitzuen, siltasun gutxiarekin, baina auditorioa beteta. Marifé Nogales *mezzo*-aren emanaldia ere nabarmendu behar da, beti eraginkorra. Beraz, denboraldi hasiera ona izan zen, nahiz eta ez ikusgarria.

Denboraldiko bigarren obra Francesco Cilea-ren *Adriana Lecouvreur* ederra izan zen, intrigaz eta interesez beteriko lana, pertsonaia historiko bat protagonista duena, Adriana Levouvreur bera, bere garaian (XVII/XVIII. mendea) emakumeen eskubideen garapenean paper inportantea jokatu zuena.

Oinarri historiko hori izateaz gain, musika kalitate izugarria duen obra da, melodikotasun handia baitauka, eta ñabarduretan oso aberatsa da; eta OLBERen bertsioa ere horrelakoa izan zen. Bertsio


dotorea izaki, eszenaratze klasikoa izan zuen, gustu onekoa eta oso orekatua, eta abeslariak ederki luzitu ahal izan zituzten haien bertute bokalak.

María Agresta sopranoak, Adrianaren paperean, segurtasun handia erakutsi zuen, eta linea liriko polita; paperari siltasun berezia eman zion.

Jorge de Leon tenorea, Maurizioaren paperean, protagonistaren kontrapuntu perfektua izan zen. Ausarta, segurua, emanaldi bakoitzean dena ematen duen abeslaria da. Eta hori asko gustatzen zaio publikoari.

Silvia Tro Santafé *mezzo*-ak, bere aldetik, lan bikaina egin zuen Bouillongo printzesari bizitza emanda, berezkoa duen profesionaltasunarekin. Eta Carlos Alvarez baritonoak Michonnet zoragarri bat oparitu zigun, bere lankide Jorge de Leonek adinako kemen eta erabakitazunez.

Gainerako osagaiak puntu-puntu egon ziren. Marco Armiliato zuzendariak, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren buru, eta Bilboko Operako Abesbatzak, zuzendari berriarekin (Esteban Urzelai) distiraz egin zituzten beren lanak. ●



IKUS-ENTZUNEZKOAK



FILMAFFINITY



Kontuz animalia basatiekin

AINHOA OLASO SOPELANA

Ardi artean lanean dabil Matthias, nagusiaren oihu zakarren menpe, Alemaniako hiltegi batean etxetik urrun. Arduradunak "ijito motela" dela aurpegiatu eta azken horrek buroarekin kolpe bat emanda erantzuten dio. Lurrean utziko du, sudurretik odola dariola. Lanpostutik ihesi auto-stopean itzuliko da herrira, Transilvaniako mendi ingurura. Bezperako bizitzan murgiltzen saiatuko da bertan: bikote ohiaren etxera bueltatu, abandonatutako semearekin harremantzen ikasi eta maitale ohiarekin berriz elkartzeko nahiko du.

Gabonetako argiak. Musika bandaren entseguak. Ibilera baldartzen duen elurra eta otordu familiarrak. Musika extradietetikorik gabeko Eguberri bat Errumaniako herrixka batean.

Maskulinitate toxikoa. *Atentie, la animalele salbatice*. Azeriak eta hartzak. Lan eskaintza bat. Molotov koktelak eta eskopetak. Xenofobiak sortutako gatazka gordina, Europa ekialdean.

Ez dut uste "Gabonetako Bereziak" filmen karpetan dagoenik, baina *R.M.N.*

ikusteko momentu egokia izan daiteke, dena delakoagatik.

Langabezia nagusi den arren, herriko okindegian postuak ezin bete dabilta azken denboraldian. Dirulaguntza bat jasotzeko aukera baliatuta, enpresako jabeek migratutako hiru gizon kontratatuko dituzte. Albiste horrek auzokoak aztoratuko ditu: sare sozialetan mezu arrazistak zabaldu, herriko ogia erosteari utzi eta etorri berriak uxatzen tematuko dira.

Eszena guztietan gatazkaren parean jartzea izan ohi da zuzendariaren estiloa. Eta aitortu behar zaio kamera koku eta momentu horretan gertatzekoa den guztia plano berean kontatzen digula ausardiaz. Ikusten ez dena eta erakusten denaren arteko muga, lausotuta.

Badago sekuentzia bat, hamabost minutu irauten dituen, ahazteko zaila egiten dena. Herrikide berriei hitz egiteko elkartzeko dira auzokideak kultur etxeko aretoan. Lehenengo minututik hamabosgarrenera, filmean zehar jasotako gaiak edukiz kargatuta itzultzen zaizkigu asanbladako hitz hartze bakoitzean.

R.M.N

CRISTIAN MUNGIU

2022

ZER: Filma

HERRIALDEA: Errumania

IRAUPENA: 125 minutu

NON IKUSI: Filmin

Alkateak gidari rola hartzen du: "*Me sedez, zaindu zuen hitzak, Mendebaldea guri begira dago eta*". Baina zalaparta gailenduko da eta herriko ijitoen kontrako liskarrak azaleratuko dira. Europa gogor kritikatu dute, abandonu sentsazio kolektibo batetik, txikizioen eta esplozazioen erantzule eginez. Herritarren oinarritzko beharrak ere aurpegiatuko dizkiote alkateari. Baina azkenik, iritsi berri diren migratzaileak kanporatzeko bozketa egingo da. Dena kameraren kokalekua mugitu gabe. Eta egoerak okerrera baino ez du egingo.

Pena ematen dit halako istorioak landa eremuko kontestuekin soilik lotu eta pertsonaiak basakeriatik eraikitzeak, animalia inbasoreekin konparatzera iristen baita filmean; Matthiasen eskopetaren jomuga lanbrotzeraino. Gatazka sinplifikatu eta distantziatik begiratzea garmatza, indarkeriaren muinera jo eta enpatizatzeak aukera galduta. Baina hari interesgarri asko iradokitzeak gaitasuna du pelikulak, hitz jario handiago batera eramango gaituena, seguru. ●

Guk mundua aldatuko dugu

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Arraroa da abenduko azken egune-
tan astekari batean idaztea, ez bai-
takizu irakurleak alde honetakoak
izango diren, hau da, 2025ekoak; ala
bestaldekoak, alegia, atalasea gurutzatu
dutenak eta bilakatu direnak, aldizkaria
etxera iritsi bitartean, 2026ko biztanle.
Aurrenekoei zuzenduz gero, apustu segu-
ruea litzateke urtearen errepaso bat egitea,
bere une gorenekin eta batez ere –gauzak
nola pasa diren ikusita–, momentu deito-
ragarrienekin. Bigarrenei berriz, kontatu
beharko nieke urte berria markatu deza-
keen zer bait, iragarpen bat; dasta ezazue
etorkizun zaporeko mokadutxo hau.

Ai, zalantzak. Bueno, errazena izan-
go da etorkizunari erretrobisoretik begi-
ratzea, 2026an euskal kulturen mugarri
izan beharko lukeen efemeride bat aipatuz,
zeinak aukera ematen baitit teoria kultu-
ral mamarratxoenean murgiltzeko urtea
bukatzeko nire ohiko *outfit*-ean: lumadun
boa, igitai eta mailudun uxanka txanoa eta
pololo zuri batzuk, Union Tuteraren elas-
tikoarekin konbinatuta, nola ez.

Jarrera hori hartuta, zorionekoak gare-
la deklaratzeko nire urte berriarekin ospa
baitezakegu euskal musikak eman duen
bakarlari interesgarrienetako baten de-
buta. Aurretik poeta gisa ere ezaguna zen
Andoni Tolosa *Morau*-k 1996an argitara-
tu zuen lehenbiziko diskoa Gaztelupeko
Hotsak zigiluarekin eta, ez da bakarrik ia
harramazka bat jasan gabe iraun dutela
diskoko hamalau piezek gaur egun arte.
Soziologikoago jarrita, esango nuke kan-
ta zehatz batek iragarri zuela jarrera ba-
ten agerpena, zeina, ezari-ezarian, guztiz
hegemoniko bilakatu baita hurrengo hiru
hamarkadetan gure kulturen.

Guk mundua aldatuko dugu da kanta
eta, gauzak norantz doazen ikusita, uste
dut agertu behar lukeela euskal identitate
garaikidearen eraikuntza kulturala azter-
tzen duen edozein periodizazio berritan,



1960-1970etako poema fundazionalen
artean Joxe Azurmendiren *Manifestu atze-
ratua* edo Amaia Lasaren *Nereak ez diren*
agertu beharko liratekeen bezala. Mugarri
horien antzera, *Morau* ere deskribatzen ari
zitzagun subjektibitate berri bat, oraindik
Internetik eta Instagramik eta podcastik
eta beste gauza txiripitiflautikorik ia exis-
titzen ez zen garai batean. Garaia aurrea
hartu zion, antizipazio-ariketa harrigarria
da gaur egundik begiratuta kantaren hasie-
ra: “Ni guai naiz / Nire lagunak guai dira”.

Fijatu ondo, ze abestiak pertsonaletik
kolektiborako jauzi bat proposatzen du
hasieran; baina denok guai izan gaitezkeen
utopia ezinezkoaren aurrean, kolektibo ho-
rren mugak zein diren ere agerian jartzen
du: “Nire lagunak ez direnak / Horiek ez
dira inolaz ere guai”. Huts egiteko beldurrik
gabe diot, formulazio hori modu ez-ironi-
koan praktikan jartzean hasi zirela euskal
kulturen gaur egungo arazo guztiak.

Abesti kontzeptuala dela ere esango
nuke, enfasi berezia jartzen baitu “guai”
terminoan, hemezortzi aldiz esateraino

–gehi, errepika gisa belarrira xuxurla-
tzen dizkizunak, xuabe-xuabe, “guai”, gar-
bi gera dakizun zein den ereserki itxuraz
sinple honen atzean gorde behar duzun
ideiatzarra, orduan oraindik etortzekoak
ziren garai berrien espiritua, gaur egungo
euskal norguaiagoka etengabea bizitzear-
en sentsazio bigungarri eta anestesikoa–.

“Gu guai garenez / Gure iritziak dira
guai / Besteen iritziak ordea / Horiek ez
dira inolaz ere guai” bezalako pasartee-
kin; eta zer esanik ez, zati esplizituki poli-
tikoekin –“Gure asmoak dira guai / Gure
ekimenak dira guai / Besteen ekimenak
ordea / Horiek ez dira inolaz ere guai”–,
Morau-k kantatu zion aurrerabidean zen
herri bati, zeina modurik tontonean, in-
pase soziopolitiko batean sartu zen, bere
buruari guaitasunetan oinarritutako pe-
dagogia bat errezetatu ziolako.

Zorionez, horrelako jarreraren aurkako
antidotoa ere badu kantak. “Bla, bla, bla,
bla-bla-bla-bla-bla, bla-bla, bla”. Azkenal-
dian askotan aurkitzen dut nire burua
hori errepikatzen. ●

Hezkuntzari fokua jarri diogu ARGIA

Urtarrilaren 12tik aurrera, sartu **argia.eus/hezkuntza** kanal berezian
Egunerokoan hezkuntza gaiei jarraipena egiten segitzeaz gain...



ASTELEHENERO

Etxerako lanak
podcasta

Mikel Garcia Idiakezen eskutik



HILERO

Ikusi eta ikasi
bideo-erreportajeak

Arabako Errioxa

naiz

Eta nire
etiketan
esanda dago
dena.

Nire jatorriaz
hitz egiten duelako,
kalitate berdingabeaz,
esperientziaz, berrikuntzaz.

RIOJA
DENOMINACIÓN DE ORIGEN CALIFICADA
RIOJA ALAVESA



Saltoki eta
jaketxeetan arretaz
begiratu etiketari;
Arabako Errioxa
jarri behar du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA